



Iñaki Eizmendi
«BASARRI»

BERTSOLARITZARI BURUZ

BERTSOLARITZARI BURUZ

AUSPOA LIBURUTEGIA
(178)

Auspoa Liburutegia
(EDITORIAL AUSPOA)

Plaza Santa María, 2 - Tolosa, Gipuzkoa
Tel. (943) 67 12 82

Iñaki Eizmendi
«BASARRI»

BERTSOLARITZARI
BURUZ

Auspoa Liburutegia
1984

Azalean: Errezil, Basarriren jaioterria.

© Auspoa Liburutegia

Fotokonposatzalle: Cometip, Barañain, Iruñe

Moldiztegia: Gráficas Lizarra, S. L., Estella, Navarra

Depósito Legal: NA. 1.299-1984

ISBN 84-7158-122-1

ARKIBIDEA

| | |
|-----------------------------------|-----|
| Itzaurrea | 9 |
| Bertsolaritzari buruz (I) | 15 |
| Bertsolaritzari buruz (II) | 21 |
| Bertsolaritzari buruz (III) | 27 |
| Bertsolaritzari buruz (IV) | 33 |
| Basarri bertsolariari :..... | 39 |
| Gabriel Aresti jaunari | 43 |
| Bertsoak dirala-ta | 49 |
| Toki berezia | 55 |
| Bertsolaritza dala-ta | 57 |
| Koplariak | 63 |
| Gauzak beren neurrian (I) | 69 |
| Gauzak beren neurrian (II) | 73 |
| Bertsolaritza eta Kultura | 81 |
| Bakoitzari berea | 87 |
| Zergatik ote? | 91 |
| «Xenpelar-Saria» dala-ta | 93 |
| Gazteak bear ditugu | 97 |
| Berri pozgarria | 101 |

| | |
|---|-----|
| Kopla zarrak | 105 |
| Gauzak itxuratzen | 109 |
| Asmo txalogarria | 115 |
| Bein da berriro | 121 |
| Gauzak esan | 125 |
| Bertsolaritza | 131 |
| Bertsolariaren nekea eta eraman bearra | 137 |
| Ondo ala gaizki itzezin | 141 |
| Bertso jaialdiak obetzeko | 145 |
| Potoak | 149 |
| On bearrez okertu | 153 |
| Libururik ederrena | 157 |
| Txapelketak | 161 |
| Santa Ageda eskaleak | 165 |
| Bertsolari eskolak | 169 |
| Dakianak ba-daki | 171 |
| Erreztasunak | 175 |
| Bertsolaritzari buruz berriz ere | 179 |

ITZAURREA

«Basarri bertsolaria» nunai eta noiznai entzuten eta irakurtzen da. «Basarri idazlea», berriz, oso gutxitan.

Basarrik daukan alderdi bat aitortzen zaio, beraz. Bañan besterik duanik ez dakit oartu ere egiten geran, bear bezela beintzat.

Ez da, bada, izango, bigarren alderdi ori izkutuan daukalako. Batekoz bestera: egunero, nik al dakit zenbat urtean, bere idazlanak danon begien aurrean azaldu ditu, geienak egunkarietan, bañan astekarietan ere ez gutxi.

Ezta irakurlerik ez daukalako ere. Gaur egunean nekez izango da euskeraz, Basarriren kronika oiek ainbeste irakurle biltzen duan idazlanik.

Ezta ere, noski, nolabaiteko euskera erabiltzen dualako. Euskera errikoia, leguna, gozoa, garbia, aberatsa ta argia, Basarrirena. Itz batean esateko, jatorra ta benetakoa. Danok aren

bidetik jo izan bagendu, gaur beste txori batek joko liokela uste det kuku euskerari.

Bearbada, Basarrik esaten duanarekin ez da irakurlea batzutan bat etorriko; bañan aren euskerarekin gozatuko ez dan euskaldunik ez derizkiot izan ditekenik.

Bañan erne: itxuraren kontrakoa gerta ditekela Basarriren euskera. Lanik ez duala ematen du. Olako izkeraz orriak errez bete ditezkelat. Ederki eman ere. Orrela idazteak badu bere nekea. Erreza irudi, bañan zailla izaki. Erderazko idazle batzuegatik esan izan dana, alegia: *la difícil facilidad*. Proba egin duanak esan lezake ederki.

Uka eziñezkoa da, guk uste, etzaiola Basarri aitortu, merezi duan neurrian beintzat, idazle dan aldetik daukan balioa. Zergatik ote?

Nere iritzirako, aren bertso-liburuak dozen erdi bateraño argitaratu diralako; ta aren prosalibururik orain artean bat ere agertu ez dalako.

Aren prosazko lanak ez dira liburuetan bildu ta jaso. Ta, ori egin ezean, iñoren izena prosaliburu baten azalean ikusi gabe alegia, ez degu dalako ori prosa-idazleen zerrendan ezartzen.

Orixe da, dudarik gabe, Basarriekin gertatu dana. Aren prosazko lanak egunkarietan agertzen dira. Egunkaria, berriz, gaur irakurri ta bigar bota egiten dan papera da. Ez da gordetzen. Ta paper ortan datorren idazlanik ere ez da jasotzen; ez Basarrirenik, ez besterenik.

Egi-egia da, noski, periodisten lanik geienak egun bateko loreak dirala. Gaur argia ikusi ta bigar edo etziko beren gaurkotasuna ta esanaia

galdua dute. Ta Basarrirenak ere ez dira lege zorrotz ortatik libratzen.

Bañan geienak esan degu; ez danak. Periodistak, nor danak beintzat, baditu betiko balio duten lanak ere; gaur ainbat meritu, bigar, etzi eta emendik amar urtera izango dutenak. Ta Basarriren lanetan ere bada olakorik; ta ez gutxi.

Zergatik ez ote da, bada, aren prosalibururik gaur arte azaldu? Erreza etzalako, noski. Ta zailtasun ori, nik uste, ugaritasunak berak ekarria da.

Lenengo, aren eguneroko lan oiek bildu egin bear ziran, gero andik aukera egiteko. Bañan Basarrik berak ere ez du bere lanik gorde ta jaso izan. Alde batetik, izan ere, periodikoaren txoko ori egunero bete bearra, bada iñoren burua kezka eta arduraz betetzeko lain. Bestetik, berriz, idazle ta artista askok ez dute bere lanik aintzakotzat artzen.

Urte askotxo dira, Basarriren prosazko lanak irakurrita, nere buruari esan niola:

—Lan aukerak merezi ditek, bada, bildu ta liburuetan agertzea.

Ala, jasotzen asi nintzan. Gerorako ere esanairik zeukan Basarriren artikuluren bat ikustean, karpeta berezi batean sartzen nuan. Biltze-lan orri are gogotsuago ekin nion, esan bezela berak bere lanik gordetzen etzuala jakin nuan.

Bigarren pausoa, berriz, idazlan oiek sailkatzea izan da. Mordotan bildu, alegia. Gai bati dagozkionak, danak alkarrekin jarri.

Ori egin ondoren, ez degu dudarik izan, ar-

gitaratzeari nundik asiera emango genion. Basarrik, bera ere bertsolaria izanik, bertsolaritza-ri buruz askotan itz egin du. Lan oien bildumarekin lenengo liburua egitea, gauza egokia litza-ke.

Bañan bertsolaritza bi eratan artu diteke: kondaira eta bertsogintza.

Kondaira, alegia: lengo bertsolari zaarren bizitzak, gertakizunak, bertsoak... Garai bateko desafioak, saioak, bertso-paperak... Ta abar.

Bertsogintza, berriz, bertsoaren neurria, puntuak, esanaiak... Saioak nola prestatu ta noiz ta nun egin bear diran... Gai-jartzallearen lana... Ta abar.

Danetik du Basarrik. Bañan guk, lenengo liburu ontarako, bertsogintza aukeratu degu, bera bakarrik liburu bat betetzeko aiña izanik.

Oar bat egin bearrean gaude: Basarriren idazlanak biltzen gogoz ta benetan alegindu bagera ere, badakigu banaka batzuk gure eskuetara iritxi gabe geldituko zirala.

Ala ere, ez degu dudarik egin liburu au, akats ori izango badu ere, argitara emateaz. Bestela, bilduma oso-osea egin artean egon bear badegu, naiko lan izango degu danok ere liburua geren begiz iñoiz ikusten.

Beste oar bat: bilduma ontan, lenengo idazlana 1963 urtekoa da; azkena, berriz, 1984'koa. Ogei ta bat urte oietan, Basarri lan da lan jardun da, bere artikulu oiekin libururik egin zitekeanik sekulan burutik pasa ere gabe. Bere eguneroko konpromisua bete ta aurrera. Orregatik,

ez dedilla iñor arritu, liburu ontan gai bera bein baño geiagotan erabilia izan dala ikusten badu.

Bilduma au moldiztegirako prestatutakoan, Basarriengana joan giñan, gure asmoak zer ziran adieraztera. Ontzat eman baitzituan, bilduma bere eskuetan utzi genduan, begiratu bat eman zezaion, moldiztegi-okerrak zuzentzeko, gauza guztiak bere gustora jartzeko eta izenburua asmatzeko.

Zer esanik ez da, gaurko au Basarriren lenengo prosa-liburua bada, ez dala azkena izango. Senideak baditu, ez gutxi gañera, txandaren zai.

Ta, azkenik, nork bere gorazarrea egitea itxusia bada ere, *Auspoa*'k bota bear du gaur berea: poz aundia ta arrotasun pixka bat ere baduala, Basarriren lenengo prosa-liburua berak argitaratzeaz.

A. Z.

BERTSOLARITZARI BURUZ

- I -

Bertsolaritzak, beste edozer lanketak bezela, ba-ditu bere goraberak.

Askotan, gutxien dakitenak itzegiten dute geien bertsolaritzari buruz. Aspaldi ontan orratik, Jaunari esker, jendea asko ari da lezitzen eta edukatzen.

¡Ba-zan ordu ere!

Dexkuido gabekorik ezta iñor mundu ontan. Bat batetako bertsotan, aotik aorakotan, dexkuidorik ez izatea litzake arrigarri. Konpontze-ko ezpaita denborik eta astirik izaten.

Orañarte, ordea, zenbait lekutan, lau puntuko bertso batean iru bukaera berdin eman, eta txalo zaparrada ederrak entzun izan dira. «Ori uan bertsoa ori», esan oi zuten gañetik txalojole aiek.

Bein baño geiagotan komeri modu auek ikusiak gaude. Entenditu bakar batzuk konturatzan ziran bertsolari ura bertso batean iru «poto» aundi eginda zegola.

BERTSOAREN ARIA

Entzuleen artean asko ta asko eztira konturatzan gaur ere, bertsoaren aria nork daraman zuzen eta nor dabillen bidetik urrutiratuta, zabaldua, saill aundiegiak artuta.

Azkenengo puntuaren esan naiari ta pikardiari bakarrik begiratzan dio zenbaitek, aurretik bertsolaria nundik eta nora ibili dan begiratu gabe.

Etxe batean balio duna ezta tellatua bakarrik izaten. Zimenduak gaizki artu ezkerotellatuak ezta geiegi luzituko. Betik eta goraiño jun bear du obrak ondo, obra baliosoaren izena artuko badu.

Alperrikako betelan asko egiten da bertso-tan.

Orain baño len, garai batean, geiago.

Buruz dakizkigun lengo bertso zar askoren asierari begiratu besterik eztago:

«Nere ustetan igualak dira
arrobia ta kantera...»

Beste bat:

«Iru ta bi bost dira,
bost eta bi zazpi...»

Beste bat:

«Diferentiak izaten dira
aurria eta atzia...»

Egundoko errenkada osa genezake tankera berdintsuko bertso asierekiñ.

Bost urteko ume batek ba-daki iru ta bi bost dirala, ta aurea ta atzea diperenteak dirala.

Ori guzia betelana da. Puntuak ondo uztartzeko zedozeri eldu egin bear eta eldu.

Bertso onak, bertso mardul, oso ta bikañak, ezta olakorik izaten. Asieratik bukaeraraño izaten da giartsua.

Naiz azkenengo puntuan bere gatz eta piperra izan, era ontan moldatutako bertsoa ezta txalogarri. Ezta meriturik aski txaloak merezi al izateko. Gutxiago berriz bertsolariak juzgatze-ko jarrita dauden gizonak asetzeko. Zenbait plazetan, zorigaitzez, bertsorik sakonen eta bali-soenak entzuleen esker onik eztute jasotzen; ixilik pasatzen dira.

Bertso ariñ eta jostalariak, naiz ta akatsez beteak izan, aiek oi dira txalotuak. Auek kantatzen dituztenak bertsolariak, zenbaiten iritziz.

IKASI BEARRA

Ari da jendea ikasten, baña oraindik badago zer ikasi.

Ezer dan gauzik onena da bati bertsolari bat eta besteari bestea gustatzea. Musikan, pinturan, eskulturan eta literaturan, berdin gertatzen da.

Batek Beethoven du gogozkoen; beste batek, Chopin. Batek Velazquez, besteak Goya; batek Balzac, besteak Tolstoi.

Gustoen kontrako langarik ezta izan iñoizko denboretan. Geure kezka ta ardurak errian bizi-rik irautea da bearrena.

Bertsolari bertsolaria danak, asitako ariari zuzen jarraitzen jakin bear du. Ardoatzaz itzegiteko aginduta illargiatzaz mintzatzen dana ezta bertsolaria. Alakoarentzat juez danak alperrik dira. Ark derizkionak botako ditu iñori kasorik egin gabe; errezen jaiotzen zaizkionak. Ezta iñork jarritako esi barruan errendituko.

BIDE JARTZEA

Bi bertsolari on kantuz ari diranean, badakite nola jokatu. Bietako batek bidea jarriko du. Edo txandan egingo dute zeregin ori, bein batek eta bein besteak. Batek gaia eman; besteak erantzun.

Erantzun egokia ematen dunarentzat oi dira txalorik bizen eta beroenak.

Ari bidea eman dionak ez al du lanik egin?

Bidea jarri dionak, jatekoa eskutara eman dionak, ba-daki, gutxi gorabera, besteak zertxeo erantzungo dun. Baten lana bezin txaloga-rria da bestearena.

Biak dute alkarren bearra jendearen gustoa egingo ba'dute ta plazan luzituko ba'dute.

Zezenik gabe ezta torerorik. Biak alkarrekin bear dute jaialdirik izango bada.

Erdipurdiko bertsolariak ortan galtzen dira. Eztakite alkarri biderik jartzen. Iñoiz izaten dutenean ere, bear dan etekiñik eztiote ateratzen gaiari.

Bertsolari ontxoak izanarren, alkarrekin konpianza aundirik ezpadute ta alkar serbi-

tzeko oiturik ezpadute, gaizki ibiliko dira, baite-re.

Pelotan egingo dunak frontoia bear du; bertsotan egingo dunak gaia ta zer esana. Onek ematen ditu lanak askotan.

Ezagutzen eztan, edo gutxi ezagutzen dan erri berri batera jundakoan, pentsatu egin bear da gero nundik asi ta nola segi.

Askok batekoz bestera usteko dutenarren, Juradu bat alboan izatea bentajakoa da jatorrizko bertsolariarentzat. Kezka bat gutxiago, ta ez txikiena.

Juradua alboan izan ezkerro, bertsolariak eztauka burua zer nekaturik, nundik eta nola asi kantari.

Juraduak emango dizkio gaiak. Aietara errenditzea naikoa du, al dunik egokien.

Erritako pesta guzitan, erri bakoitzean norbaitek bear luke bertsolarieri gaia jarteko kargua.

Artaka jakingo genduke erri bakoitzean zer komeni dan ixiltzea ta zer komeni dan kantatzea.

Baita jendeari gogozkoen zer zaion ere.

Zeruko Argia, 1963-VII-14

BERTSOLARITZARI BURUZ

- II -

Bidezko deritzaigu bertsolaritzari buruz zertxobait esatea; gipuzkoar bertsolarieri buruz batipat.

Emengo bertsolariak geien ondatzen gaituna puntu legea da. Bertsoaren giar eta sentiduari baño puntuak ondo uztartzeari arreta biziagoa eskeintzen diogu. Oso urreko puntuak izan ditezela; ots berdintsua atera dezatela, belarriak ondo goza ditzatela.

Au guzia traba ta eragozpena da guretzat; adierazi ezin añako eragozpena.

Besteak beste dirala, orain txapelketetarako mai-gizonak artu duten oitura da berriz ortik onerakoa!

Gaiak ezarri ta bederatzi puntuko bertsoak aurrez aurre kantatzera beartu bertsolariak. Bertsolariak keldotzeko, larriak ugaltzeko, ta jaialdiak moteltzeko ezтитеke xixtima oberik autatu. Bederatzi puntuko bertsoak berekin ditun neke ta estuasunak ezagutzeko norberak bear

du bertsolari; ofiziokoak daki ondoen ori zer dan. Oso doñu berezia dute bertso oiek, eta guziz sail laburrekiko doñua.

Eztago pentsamenturik bear bezela agertzerik. Puntuak pillatu puntuen gañean, eta bukaeran ezer gutxi esateko.

Bederatzi puntuko bertsoak, patxadan, denborarekin, paperean jartzeko. Paperean ere asitako guziak eztute asmatu bederatzi puntuko bertso onak jartzen.

Txirrita zanak esan oi zuna au zan: alegia, berak egundo iñongo plazetan etzula kantatu bederatzi puntuko bertsorik, eta aurreko zarretan ere iñor etzula ezagutu kantatzen zunik.

Azpeiti'ko gorabera zala-ta, Udarregi'k eta Pello Errota'k bederatzikoak jarri zizkioten alkarri. Baña paperetan jartzea ta bat batean plazan kantatzea eztira berdiñak. Bederatzikoak dira Xenpelar'ek bei betroiari jarri zizkionak. Baita Bilintx'ek Donosti'n zikin karrío ibiltzen zan zaldiari jarri zizkionak ere. Era ontako ejenplu asko ager dezakegu.

Gure aldetik galdera bat egingo genduke orain.

Larogei urtez gorako bertsozaleak askotxo bizi dira Gipuzkoa'n, zorionez. Egundo iñoiz ikusi al dituzte bi bertsolari edo lau, plaza batean, Juraduak jarritako gaietara errendituz, bederatziko bertsoak kantatzen?

Seguru dakigu erantzuna ezezkoa izango dela. Txirrita zanak ikusi etzunik gaur bizi diranak eziñ ikusi.

Gugatik egin bezate nai dutena, an da emen, Juraduko jartzen diran gizonak. Baña, bertsolariak ortara beartzearekin, bertsolaritza jextea ta itxustea besterik eztute egingo. Doñu laburrean, saill txikian, itz gutxitan asko esaten dago bertsolariaren grazi ta meritua, ta ez doñu biurri ta luzean, saill aundian, ezer gutxi esaten.

Zenbait sermoigille ta izlarik orduerdi batean baño, beste zenbaitek ondotoxo geiago esaten du iru minutuan. Auetan izlari ona nor dan eztago esan bearrik. Lau edo bost puntuko bertsoak ba-ditu bere lanak ondo asi ta ondo eramaten. Txapelketa egunetan, batez ere. Aietan ezpaita lagunarte bateko lasaitasunik izaten, kezka ta arduraz bat gañezka dagolarik. Au alde bat utzirik, gure iritzirako, emengo bertsolarien akatsik aundiña zein dan esango degu.

Puntuak al danik urrenekoak izatea nai degu; senidetasunik aundienekoak. Puntu bat, adibidez, «atean» esanaz bukatzen badegu, urrengoak derrior «katean», «kaltean», «batean», «artean» edo olatsu izan bear dutela uste degu. Lege onek bideak itxi ta trabak jarri besterik eztigu egiten. Euskal bertsoak naitaezko du puntuen gozotasuna, kantatzeko bertsoak diranetan beintzat. Baña eztegu premizko ta bearreko ain urrean ibiltzea. Iñongo izkuntzetan ezta ain juxtu ta lotukor puntu legea. Azkenengo bi silabetan «ean» ori entzutea bearrezko da bertso tankerik izango badu, baña «atean» itza ondo uztartua legoke emen dijoazen auek guziekin: «artean», «artzean», «zarrean», «kalean», «lanean», «astean», eta abar.

Gure olerkariak, poetak, ala erabiltzen dituzte ta oso zuzen jokutzen dute.

Bidasoz aruzko kanta ta bertsoak gureak baño apañagoak, bikañagoak, eta esanai aundiagokoak dirala geuk aitortzen deguna da.

Guk baño bide zabalagoa artzen dutelako da ori; pentsamentuaren muña agertzeko guk baño toki lasaiagoa daukatelako. Adibidez, Elizanburu aundiaren bertso bat artuko degu: danok ezagutzen dezutena.

Asiera au du:

«Erriko pestak ziran biaramonean...»

Erriko pestak zirala ta berak dakiten toki batean zirala. Lau atso, iru alargun eta neskeak bat zirala alkarrekin. Itzalean jarririk, arri xapal baten gañean trukean nola aritu ziran; zer jokatzen egin zituzten, zatoa nola estutzen zuten, lauarekin iruaren keñua egitera nor jarri zan, alkarri eman zizkioten arrazoiak eta abar, dana dago garbiro agertua itz gutxitan eta bertso bakanetan.

Ta... zein gozo ta ez-titsu sartzen diran puntu oiek gipuzkoarron belarritan!

Lenengo aapaldiaren puntuak onoko auek dira:

«Biararamonean», «Batean», «Itzalean», «trukean», «gañean».

Emengo bertsolariok puntu bat «nean» esanaz bukatzen badegu, urrengoak ere «nean» ori bearko du.

Adibidez: «biaramonean», «egunean», «lanean», «onean», «danean», eta abar.

Ixtura onek, juxtunai onek zer kalte egiten

digun eztago adierazterik. Egoak mozten dizki-
gu, ankamotz uzten gaitu. Esan bearreko erdi-
rik eztegu esaten jokabide oni jarraituz. Gazte-
leraz, au da, kastellanoz, «tendría», «hacia»,
«querría», «sabía», «manía» ta beste milla olako
oso legezko puntuak dira. Azkenengo «ía» ori
entzun ezkerro, ezin da obeto datoz belarritarako.
Euskal bertsolariok bide au artu bearrak
gaude ezer onik egin nai badegu. Guk artua
daukagu gure aldetik. Sekula eztira ondo sartu-
ko «atean» eta «zeruan», naiz ta azkenengo
«an» ori berdiña izan. Aurreragotik asi bear da
urreratzen; «uan» eta «ean» urruti, aparte dau-
de. «Ean'ek» «ean» eskatzen du, ta «uan'ek»
«uan».

Zer esan nai degun konprenditu dezutela-
koan eta jabetu zeratelakoan gelditzen gera.

Zeruko Argia, 1963-X-6

BERTSOLARITZARI BURUZ

-III -

Goazen aurrera, jun dan astekoari zerbait geiago erantsiz.

«Orixe» aundiaren itzak agertuko ditugu lengo:

«Ez diñot, ez, kantatzeko neurtitzetan puntua oso kentzekorik. Gure bertsolarieri ez dakit nik aña esker nork emaiten dien; baña neurtitzak irakurtekoan, askatu bear genuke kate astun ori.»

Kate astuntzat zeukan «Orixe'k» puntua olerkirako, poesirako.

Kantatu bear dan bertsoa punturik gabe, iturria urik gabe bezela da. Bertsoa ta poesia bi gauza dirala konturatu bear degu. Bertso eder, borobillak, izan ditezke, ta ba-dira poesi arras-torik gabeak; baita bertsorik gabeko prosa lanak poesia dariotela daudenak ere.

Poesia ixurian dutela daude Charles Baudelaire'n itz-lauzko, prosazko poematxoak, eta

bertso biribillak izanarren, ezta poesi geiegirik Ramón Campoamor'en lanetan.

Euskaldun bertsolariok, oraingoz, eztegu geiegi arduratu bear poesiarekin. Gure egitekoa besterik da. Sail berezia daukagu euskal literaturan. Gure bidea izendatua dago ta andik segi bear degu. Olerkariak (poetak) ba-dute beren bidea ta egitekoa; dabiltzala euren aldetik. Etxe bat zutituko bada, era guzitako gizonak egin bear dute lan: arkitetoak, igeltseroak, arotzak, peoiak...

Euskerari zutik eutsiko badiogu ta indar berririk eman bear bazaio, danok gatzazkio premizko.

Bertsolariok, puntu kontu ortan, pixka bat lasaitu bearrean gaudela esaten gendun lengo astean; estuegi ta itxiegi artzen ditugula gauzak, batez ere gipuzkoar bertsolariok. Mugaz aruzkaldean –esaten gendun– gu baño burutsuago dabiltz ortan; bide ohea daramate.

Askotan, ordea, neurritik pasa egiten dira; emen estuegi bezela, an zabalegi dabilta.

Ba-da ango kantu zar bat erriak oso artua duna, ta oraindik ere nunai kantatzen dana. Gure radioetan sarri entzun izan degu:

Lili bat ikusi dut baratze batean,
desiratzen bainuke nere sahetsean;
lorea ez du galtzen, udan ez neguan,
haren parerik ez da bertze bat munduan.

Ondo egiña egongo da neurritz, irudipenez eta sentiduz. Eztiogu ezer ukatzen.

Baña, gipuzkoar entzuleen belarritarako puntu baldarrak ditu. Lenengo biak ondo dau-
de; «batean» eta «sahetsean» ondo uztartzen
dira. Azkenengo biak ez iñolako moduz:
«sahetsean» eta «neguan» oso urruti daude bata
bestearengandik. Azken silaba «an» esanaz bu-
katzten dala, ta urrengo puntuari «an» erantsi
ezkero dana egiña dagonik ezta pentsatu bear.
Azken aurreko silabatik asi bear da itzak toles-
tatzten; «ean» eta «uan» sekula eztira ondo ez-
konduko.

Astigarraga, Ernani, Usurbil, Astiasu ta
Oiartzun aldeko sagardotegitan millaka bertso
zar entzun dituztenak eztiote esker aundirik
emango olako bertsoari. Puntu traketsetako
bertsoa dala, esango dute olakoagatik. Laburdi-
'ko, Benaparroa'ko ta Zubero'ko bertsotan ola-
koa erruz arkitzen degu. Etzaizkigu iñolako mo-
duz sartzen. Guk alde baterako pekatua bezela,
aiek besterakoa egiten dute.

Gutxitan gertatzen da olakorik, Elizanburu
ta Grazian Adema, «Zaldubi» kalonjearekin.

Ikus ditzagun danok ezagun ditugun Elizan-
buru'ren bi ahapaldi:

Ikusten duzu goizean,
argia hasten denean,
menditto baten gainean,
etxe ttipitto aintzin xuri bat
lau haitz aundiren erdian,
xakur xuri bat atean,
iturriño bat aldean:
Han bizi naiz ni bakean.

Bertsolariok bertsoa deitzen diogu aapaldia-ri, ta izen au erabiliko degu.

Elizanburu'ren bertso ontan puntu bat dago guretzat oso «katolikoa» eztana: «lau haitz ondoren erdian» dion puntu ori. Beste guziak «ean» azkenarekin bukatzen dira, ta ori da bakarrik «ian» itzarekin bukatzen dana. Ainbeste-ren artean bakarra dalako, pasa egiten da, seme bikain askoko famili batean seme erkin bat pasatzen dan bezelaxe.

Emengo bertsolariok eredu edo ejenplu bezela artzekoa da orren urrengo bertsoa ere:

Nahiz ez den gaztelua,
maite dut nik sor- lekua,
aiten aitek hautatua.
Etxetik kanpo zait iruditzen
nonbeit naizela galdua;
nola han bainaiz sortua,
an utziko dut mundua,
galtzen ez badut zentzua.

Zazpi puntuko bertsoak dira, ikusten dezutenez.

Zazpi puntuak «ua» dute bukaera.

Gozo, usaintsu ta ditzirakor datoz gure belarritara.

Zerbaitegatik dira ain ezagunak bertso auek Euskalerra guzian. Ezta beurentzat mugarik izan; orain berrogei urte bezela kantatzen dira gaur ere, nola Bidasoz aruztik, ala onuztik. Eta erria ezta txarra gauzak aukeratzen.

Gipuzkoar bertsolari bat jarri balitz bertso moldaketan, «gaztelua» itzari «tentelua», «txo-

rimalua», «erregalua», «alua», «errezelua» «lua» edo tankera ontako puntuak egotziko zizkion, beste gañontzean bertso ona, oso ona, ezpalitz bezela. Zazpi puntu pillatuko zitun, baña bertsoari etzion giarrik eta sustantzirik emango. Bere etxea zer eta nolakoa zan, etzun bereala Elinzaburu'k bezela agertuko.

Puntuak derrior bear ditugu euskaldun bertsolariok, baña gaur arte gabiltzan bidetxigor melar ontatik eztaukagu ibiltzerik. Bide zabaltxeagoa bear degu geure burutapenak ondo agertuko baditugu. Zabalegi ta estuegi ibili gabe, ba-daukagu erdiko bide bat.

Euskerarekin berdin gertatzen da. «Jaupariak txadonean jaupa eman du» bezin baldar eta trakets da guretzat, Jaungoikoagatik «infinitamente poderosoa, sabioa ta justua» dala esatea.

Bien tartean ba-dago bide eder eta zabal askoa. Tellatua ta bodegak bakarrik eztute osatzen etxea; erdi aldean izaten dira bizitzak, eta alaxe bear gañera.

Jauna lagun, jarraituko degu gai bera astintzen.

Zeruko Argia, 1962-X-13

BERTSOLARITZARI BURUZ

- IV -

Euskal bertsoen puntu goraberak dirala-ta, irugarren lantxo argitaratzen degu.

Gazte zalarik —esaten zun «Orixe'k»— greko-latiñezko neurtitzak ikasten eta neurtzen asi ziranean, ez omen zieten aieri ezeren utsik arkitzen.

Bertso aiek ez omen zuten punturik, baña aiek omen ziran neurtitz zoragarriak. Puntua eragozpen aunditzat jotzen zun «Orixe'k» euskal poesirako; gogaiari indarra kentzen ziola, esaten zun.

Grekoz, latiñez eta gazteleraz, kastillanoz, ba-dira, ta ugari, puntu gabeko neurtitz bikañak. Frantzi'ko poesian orratik, puntu gabeko lanik eztegu ezagutzen.

Kantatzeko moldatutako poesi edo bertsoak diranean, puntua naitaezko dala deritzagu. «Orixe'k» berak ere aitortzen zun au, aurrekoan genion bezela.

Gu, geure lantxo auetan, bersolarieri buruz

ari gera, ta punturik gabeko bertsoa urik gabeko iturria bezela jotzen degu. Gure pekatua, puntu lege orri morrontza geiegizkoa eskeintzea da, dudarik gabe, ta mugaz aruzko bertsolari zar askoren pekatua, puntu lege ortatik urrutiegi ibiltzea.

Mendi gallurrean eta leiza zuloan ibili gabe, erdian ba-dago toki amesgarria.

Pierres Topet «Etchahun», Zuberotar bertsolari sonatuaren bertsoak, gatz aundikoak, piper askokoak eta esanai mardulekoak dirala ezin uka. Alako bizimodua eraman zun gizaajoak! Bereak eta bi ikusteko sortu zan mundura seme doakabe ura.

Alare, Etchahun'en bertsoak iñoiz ez luteke tokirik izango gipuzkoar bertsozaleen belarritan. Au eztegu esaten zuberotar eta gipuzkoarren euskerak daukan aldeagatik, puntu baldarretako bertsoak diralako baizik. «Rima» traketseko bertsoak irudi zaizkio gipuzkoarrari. «Etchahunegatik» dioguna, beste mugaz aruzko bertso gille askogatik esan dezakegu, aien lanak dira testigurik bikañenak eta.

Gure bertsolariak «rimarengana» lotuegi zeudela ikusteko, «Udarregi'ren» bederatzi puntuko bertso bat agertuko degu:

Udarregi ai dala
mamiyak urritzen,
nere bajezak dira
irakurritzen,
uste eztala dira
gaitzak etorritzen,

gizona bajatzia
ni ez naiz arritzen;
urtiak korritzen,
ajiak berritzen,
diot igerritzen,
zein ezta jarritzen,
Pello ere ari da
begi gorritzen.

Garbiro ikusten dezutenez, bederatzi puntuak «rritzen» azkenarekin bukatzen ditu.

Ain bide estuak artuta, eztago bertso lanean urrutiegi juterik. Bertsolariak askatasun geixea-go bear du sentitzen duna agertzeko.

Puntu bat «urritzen» eta urrengoa «kantatzen» adibidez, puntu baldartxoak dirala esango genduke.

Baña «urritzen» orrekin oso ondo uztartuko lirake beste milla: «azitzen», «garbitzen», «aditzen», «saritzen», «sentitzen», «mamitzen», «etsitzen», eta abar. Azkentzat «itzen» izatea naikoa da, derrior «rritzen» izan gabe.

Jun dan gizaldiko euskaltzale argi batzuk bertsolarien etsai azaldu ziran, euskera loitu ta narrastu besterik etzutela egiten, esanaz.

Aurreko gizalditako gizon ikasiak zer egin zuten euskeraren alde? Zer saiatu ziran biderakusle bezela? Orduko euskaldun ikasiak beren izkuntzarik aintzat artzen ezpazuten, eta oker guzia goitik bazegon, zer egingo zuten egin zutena baño geiago eskolarik zapalduko gabeko bertsolari apalak?

Txiki denboran guk ikasi gendun dotriña no-

lakoan zan? Ikasi egin gendun, esan ere egiten gendun, asi ta buka; baña, ziona ulertzen, konprenditzen al gendun? Guk ikasi gendun dotriña ondo konprenditzeko, euskeraz ezezik erderaz ere oso ondo jakin bear zan. Gure gurasoak etzekiten erderik, eta ez guk ere dotriñaren esanairik. Urteak igarota gero konturatu giñan «admirablea», «infinitamente poderosoa», «prinzipioa», «fiña», «emendatu ta perseberatu», «ira», «lujuria», «propositu firmea», «tenplanza» ta gañerakoak zer ziran.

Garai artan entzuten ziran sermoi moduak entzun; garai artan ikasten zan dotriña ikasi, garai artan goikoak nola zebiltzan ikusi, ta... ¿zer egin bear zuten nekazari, errotari ta artzai bertsolariak? Amar bat urte genitunerako, egundoko zaletasuna sortu zitzaigun bertsoarako. «Udarregi'k» eta «Pello Errota'k» alkarri jarritako bertsoak entzutea izaten zan gozamenik aundiñetako bat guretzat.

Auzoan ba-gendun larogei urtez goitik zegon aitona bat. «Udarregi'ñ» bertso danak zekizkiñ, eta asko erregutu gabe kanta oi zitun.

«Besteak eztituk «Udarregirengana» urreratzen –esan oi zun–; «Udarregik» erdera aundia zeukak, eta gañontzekoak ezjakiñak dituk».

Argumentu parregarria iruditzen zaigu gure egunetarako, baña orain berrogei urte era ontan pentsatzen zuten euskaldun aitonak. «Eskoji-tu», «prebenitu», «unitu», «suponitu» ta olamoduzko bukaera asko erabiltzen zitun usurbildar bertsolariak, eta argatik zeukaten besterik ez bezelako jakintsutzat bertsolari barrutian.

Aparteko etorrera ta egokitasuna zuten orduko bertsolariak. Biderakuslerik eta maixurik etzuten izan. Okerreko bidea artu zuten, zuzeneko ura zalakoan. Etzan bertsolarien errua ta kulpa. Euskaldun eskolatuen zabarkeriarena geien bat.

Orduan, gizon argi ta eskolatuak, euskararen etsai ziran. Alare erriak, al zun bezela, baldar edo trakets, eutsi egin zion izkuntzari.

Gaur batekoz bestera gertatzen zaigu; jakintsu asko ditugu euskaltzale purrkatu, ta erria izkuntza galtzen ari da. Tristeza zan lengo denboretan gertatzen zana, ta are ta tristeago, noski, gaur ikusten ari gerana. Arriak negar egin lezake!

Zeruko Argia, 1963-X-20

BASARRI BERTSOLARIARI

Zeruko Argia astekariaren zuzendari jaunari errespeto guztiekin eta Basarri bertsolariari edo Eizmendi jaunari errespeto eta giza lege guztiarekin, nik, orain, Gabriel Aresti poeta txar honek esan nahi diet, azken aspaldi honetan aurrenak argitaratu dituela besteak eskribitu dituen artikulu batzuk, niri gustatzen etzaizkidanak. Oraindik gehiago, nik uste dut, nire iritzi apal, leial eta zintzoa da, artikulu hoek euskal literaturaren kaltean datortzala.

Basarrik gauza askoren gainean hitzegin du, eta nik erantzun labur batean ezin eman dezaiket guztieri arrapostua. Artikulu labur honetan gauza bakar bat esan dezaioket Basarriri, bertsolariak ere poetak direla, poeta baserritarrak, (nire lagun on batek dio bertsolariak direla egiazko poeta sozial bakarrak), eskolarik gabeko poetak, baina nire iritzian euskaldun poetarik hoberenak, olerkari guztiak baino hobeak.

Eta ni «olerkaria» naiz, Loramendi eta Orixe olerti-premioak eman baitzikidate.

Azken artikulu batean dio Eizmendi jaunak, gipuzkoar bertsolari batek bertso bati gaztelua, tentelua, txorimalua, erregalua, talua, alua, errezelua, lua, (eta palua diot nik) egotziko bazizkion, zazpi puntu pilatuko zituela (edo bederatzi puntuko bertso txiki bat tajutuko zuela), baina bertsoari etzion giarrik eta sustantziarik emango. Hainbeste ezta kigu. Pilatu besterik ezpalitu eginen, konforme, baina batzuek behin esan zuten Gaudik harriak pilatu besterik etzituela egiten, eta hala ere hor dago Familia Santuaren basilika.

Euskal poesian eta gaztelania poesian geratu ezkarenak, badaukagu erbestearen berria. Orain Verlaine bertso batez gogoratzen naiz:

*Les sanglots longs
des violons
de l'automne
blessent mon coeur
d'une langueur
monotone.*

Bertso hau guztiz lotzen zaio puntuari. Gehiegi aberastutzen du bertso honetan Verlaine puntua. Baina hala ere (edo behar-bada horregatik) inoiz ezta inun halako bertsorik eskribitu.

Nik eztut Basarri gorrotatzen, baina uste dut «enplio txar batean dala metitu». Olerkaria naiz; euskeraz mintzatzeko erraztasunik ezpai-

*taukat, bertsolaria ez naiz. Baina Basarrik dio-
na legezkoa eztela uste dut. Zeruko Argia aste-
kariaren zuzendari jaunak bere paperean leku
gehiago eskeintzen badit, nire gaurko esan hau
probatuko dut. Eizmendi jauna nirekin horrega-
tik hasarratzen ezpada, alegia.*

Gabriel ARESTI

Zeruko Argia, 1963-XI-17

GABRIEL ARESTI JAUNARI

Gabriel Aresti poetak, «errespeto ta gizalege» guziarekin izan du guretzat zerbait esateko.

Errespeto ta gizalege guziarekin erantzun nai genioke gure aldetik.

Gure artikulu batzuk etzaizkio atsegin izan Aresti jaunari. Ezta batere arritzeko. Guri ere etzaizkigu irakurtzen ditugun guziak izaten. Danok berdin pentsatze ori eziñezkoa dala aspalditxotik dakigu.

Euskaltzale artean, batez ere. Euskaltzale sallean gauden guzion gustorik egingo dunik ezta jaio, ta ezta jaioko, noski.

Bertsolariak ere poetak dirala dio Gabriel Aresti'k. Ba-du goralpenik asko bertsolarientzat; goi gallurrean jartzen ditu. Jorge Oteizak «Quousque tandem» liburu sonatuan bezalatsu.

Alde ontatik ezin kejatuko gera bertsolari izena daramagunok. Bi olerki premio irabazitako poeta batek au esan du:

«Bertsolariak poetak dira, poeta baserritarak, eskolarik gabeko poetak; baña, nere iritzian, euskaldun poetarik hoberenak; olerkari guziak baño obeak».

Zure iritzia ematea libre dezu, ta alaxe egi-ten dezu zuk. Amaikatzok, orratik, esango zuten beren baitarako:

Zer dio ordea Gabriel Aresti'k?

Etziran alperrik alegindu «Lizardi» bat, «Orixe» bat, «Loramendi», Emeterio Arrese, Jauregi, Jakakortajarena, Loidi ta abar.

Aiek erabili zuten euskera ta bertso moldatzeko tankera etzaizkitzula gogozko esatea bar-kagarri da, baña aien lanetan erri bertsolarien bertsotan baño poesi gutxiago dagola esatea, illargiak eguzkiak baño argi geiago dula esatea bezela da. Bertsolariak olerkari guziak baño obeak badira, poesi geiago dutelako da, noski.

Ortan etzuaz ondo, ta ezta urre eman ere. Gauzak bere mallan ezartzen ikasi bear degu lenengo; bakoitzari berea ematen: argiña ta arotza berezten.

Au guzia bertsolari batek esaten dizu, ta ez poeta batek, zure ustez bertsolariak poetarik onenak badira ere. Bertsolaria errian sartuago dagola; euskerarentzat, gaur gaur bezela, onurakorrigo izan ditekela. Au ta olatsuko beste milla argumentu erabili ditezke, baña poetarik onenak bertsolariak dirala eztiteke esan inñolako moduz. Arrantzalerik onenak mineroak dirala esatea añakoa da ori.

Gure artikuluak euskal literaturaren kaltean datozela idatzi dezu baitere.

Bejondaizula! Zuk atera dituzu babak lapikotik! Betoz ugari ta ordu onean, euskal literaturaren onerako izango diran Gabriel Aresti'ren artikulu giartsuak. Gauden ixil da mutu kaltea egiten ari geranok. Emengo bertsolariok puntu legera lotuegi gaudela esatea, euskal literaturaren kaltegarri, beraz.

Sekula olakorik!

Bertsolari batek, edo bertsolari izeneko batek iritzi ori ematea, ondamendi gogorak ekarri bear ditun zerbait da Gabriel Aresti'rentzat.

Ta bera lasai gelditzen da, orainarteko euskal olerkari danak aintzakoz ez artuz eta base-rritar bertsolarien azpitik daudela esanaz.

Bertsoak tajutzen egon ditezke azpitik, baña ez poesi erabiltzen. Bertso askotan oso poesi gutxi egon ditezke, ta bertso gutxitan poesi asko ere bai.

Ala ikusi izan degu guk, eta ala ikusi izan dute munduko izkuntz guzitako literaturetan. Bear bada, Gabriel Aresti bakarrik degu au aitortu nai eztuna, ta iritzi berezi bat daukana.

Epaiak ematen etzera makala, adiskide.

Verlaine'ren bertso bat agertu zenigun, eta «iñork eta iñun olako bertsorik eztula eskribitu», zenion. Munduan idatzi diran bertso danak banaka banaka aztertzen badituzu, bateonbat arkituko dezu malla ortakoa. Ta... Verlaine gogozko zaigularik.

Beldur zera Basarri «enplio txar batean ote dan metitu».

Egin dun pekatua, bertsolari artean puntu

legea pixka bat lasaitzea komeni litzakela esatea izan da. Neurri batean; geiegikeri gabe.

Gu estutxo bezela, beste batzuk lasaiegi da-biltzala esatea.

Zuk kaltegarri izango litzakela diozuna, guziz mesedegarri gendukela uste degu guk.

Ontan eztaukagu biok ondo uztartzerik. Zu zurearekin eta gu gurearekin geldituko gera.

Asarretuko geran beldurragatik, eman zentzake zeure arrazoibideak; guk, gure aldetik, emango ditugu gureak. Komeni dan ala ez, *Zeruko Argia*'ko zuzendari jaunak ikusiko du.

Ondo pentsatzen jarrita, xelebrea da gure arteko auzia. Bi «premio irabazitako poeta bat», bertsolariak bezelako poetarik eztagola esaten, eta inoiz poeta izan eztan eta izango eztan bertsolari apal bat, euskal poetak beren tokian jarri asmoz.

Geiegizko itxumenak aurreragi garamazki askotan.

Gaurko gizon batzuntzat, orain arte egindako guziak ezer eztu balio. Lurra bota bear zaio estalgarri, orainarteko guziari; xistima berri batzuk jarri bear dira martxan.

Legezko da al dunak al duna egitea, ta baita, nai badezute, batek daraman bidea biderik onena dala uste izatea ere.

Baña, jaunak!; orain baño len ere izan degu gizon bikañik Euskalerrian eta euskal letren barrutian.

Bai idazletan, poetetan eta bertsolaritan. Aiek bide urratzalle izan ezpagenitu, guk ez

gendun gaur *Zeruko Argia*'ren orrialderik bez-
tuko.

Txapela erantziko degu beti errespeturik
aundiñez aien oroimenetan. Ugari bear genituz-
ke «Lizardi», «Orixe», Azkue, Domingo Agi-
rre, Elizanburu ta abarren pareko gizonak. Ba-
kan eta urri izaten, ordea, zorigaitzez. Aldegin
zuten gugandik. Aien lanak emen gelditzen
zaizkigu. Ta lan aiek, gaurko zenbaitek utsaren
urrengotzat dauzkan lan aiek, euskerak arnasik
dun arterañoako guzian goi mallan egongo diran
lanak dira. Bertsolariak goraltzeak eztezake
mindu bertsolari bat. Eskerrik asko dio, alde
ortatik.

Borondaterik onenez arita, euskal literatu-
raren kaltetan ari dala entzuteak, orrek eztio
grazi geiegi egin. Eizmendi'tar Iñaki.

Zeruko Argia, 1963-XII-1

BERTSOAK DIRALA-TA (1)

Bakoitzak bere iritziak agertzea oso bidezko gauza da. Neri beti txalogarri deritzait. Bertsolariari buruz ere norbaiten iritziak irakurria naiz egun auetan. Iritzi oiekin bat natorrenik ez dizutet esango. Ez da bearreko ere ala gertatzea. Eskubide osoa du, goraxeago diodan bezela, bakoitzak bereak agertzeko.

Bederatzi puntuko bertsoeri buruz dago emen gorabera. Norbaitek idatzi duanez, gaurko bertsolariak ez dute lan astunik artu nai; ez dute ezer jakin nai bederatzi puntuko bertsoe-

1. «Basarri»ren lan au abenduaren 18'an Bertsolari-Txapelketa egin baño egun batzuk lenago jaso gendun. Ez uste izan, bada, egun ori baño geroago idatziak izan diranik orain irakurtzera zoazten lerro auek. «Basarrik», jakiña zan, len eta orain, beti pentsatu izan du orrela. Berarekin bat gaudela esatea bidezkoa da, ustez jakintsu edo sasi-jakintsu batzuen esanak alde batera utzita... Bijoazkio emendik, bein da berriz, «Basarri» aundiari gure zorionik beroenak bere egun ortako garaipen ederragatik.

(*Aranzazu* aldizkariaren oarra.)

kin. Ta ori orren errez esateko, zenbat bertsolari zar ikusi ditu aotik aora bederatzi puntuko bertsoak kantatzen? Zein ziran doñu ortan kantatzen zutenak?

«TXIRRITA» ZARRA

Irurogeitamar urtetik pasea zegoan «Txirrita» nik ezagutu nuanerako. Ala guziz ere, bost edo sei aldiz berarekin batera kantatzeko era izan nuan.

Ba al dakizute «Txirrita»k zer esan oi zigun bederatzi puntuko bertsoeri buruz? Berak makiña bat bertsolari zar ezagutu zuala, ta makiña batekin ari bearra ere izan zuala bere denboran. Baña, iñortxo ere etzuala somatu plaza batean aotik aora bederatzi puntuko bertso saiorik egi-ten. Berak ere etzuala doñu ori sekula erabili. Bederatzi puntuko bertsoak patxadarekin idazteko, eskribitzeko izaten zirala, ta ez bat bate-tan kantatzeko.

IXPILLU BEZELA

Norbaitek, lengo bertsolariak bederatzi puntuan egi-ten zuteneko ixpillu bezela, «Xen-pelar» eta «Larraburu»ren bertsoak agertzen dizkigu.

Ez naiz jokatzallea ta ez det joko itzik entzun nai ere. Baña... ontantxe apustutxo bat egingo nuke gustora. Alegia, gizon batek kantatzen duan bederatzi puntuko bertsoa entzule

batek osorik ikasi ezetz lenengo kantaldian. Buru oneko gizonak asko ezagutu izan ditut. Neuk ere izan nuan garaia, beste batek kantatutako lau puntu edo bosteko bertsoa memoriz artzekoa. Oietatik bederatzikora zer alde dagoan ez daki inork. Bederatzi puntuko bertsoak, «Bertoiaren» doñuan, puntu motx asko dituzte. Izkiñ edo silaba gutxikoak dira, ta ugariak.

Entzuleak ikasi al zituzten ba, bat batetan «Xenpelar»ek eta «Larraburu»k kantatutakoak? Ainbeste gizonen izenak sarturik, zeñek zer egiten zuan adieraziaz eta abar? Ez, adiskide. Gauza oiek nola izaten diran ba-dakigu. Oiek geroztikako konponketak izaten dira; asti pixka bat artuta egiten diranak.

«Udarregi»k eta «Pello Errota»k ere bederatzi puntuko bertsoak jarri zizkioten alkarri, Azpeiti'ko sariketa baten ondoren asarretu zira-nean. Azpeiti'ko sariketan, aurrez aurre, etziztuzten, ordea, bederatzi puntukoak kantatu. Aiek paperetan jarri zituzten. Paperetan jartzetik aurrez aurre kantatzera, zerutik lurrerañoko aldea dago.

EZ DA EZIÑEZKOA

Bederatzi puntuko bertsoan lan egitea ez da eziñezkoa. Iñoizko denboran epai-mai edo juraduak olakorik eskatzen badit, nik ez det ezetzik esango. Al ditudan bezelakoak bota gabe ez naiz geldituko.

Erderaz beingo batean idatzi nuana berritzeranoa: bertsolari jaialdi batean bederatzi pun-

tuko doñua e abiltzera gizonak beartzea, jaialdi dana itxustea ta ondatzea da. Doñu ori, jakiña, «Betroi zarrari» «Xenpelar»ek jarritako bertsoen neurrian danean. Ba-dira bederatzi puntuko bertsoak askoz neurri zabalagokoak. Bizkai'ko Enbeita zanak erabiltzen zuan doñuan, adibidez. Neuk sarri darabilkidan doñua da au. Berbera ezpada ere, Enbeita'k erabiltzen zuanarekin antz aundia du. Doñu ontan, ordea, izkiñ edo silaba neurria amar eta bederatzi da, ta «Betroiarenean» zazpi ta sei.

Opizioaren garraztasunak ezagutzeko opiziokoa izan bear du lenengo. «Txirrita» zana opiziokoa zan, noski, ta iñork baño obeto zekian bederatzi puntuko bertsoaren zailtasun eta nekea zer zan. Bertsolarietzaz idazten eta iritziak ematen dituzten zenbaitzuk, zer dakite aurrez aurreko bertsoaren berri?

GAIRIK EZIN SAKONDU

Zeingeiagoka batean bederatzi puntuan lan egiteko agindua ematen bazaiete bertsolarieri (doñu motxean alegia), iñola ere ez daukate gairik ondo sakontzerik. Puntuak izango dira puntuen gañean, baña azkenean ezer gutxi esateko.

Ikusi genduan Eibar'en egindako Gipuzkoako txapelketan zer lotsagarrikeri gertatu zan. Bederatzi puntuko bertsoak aginduta, parte artu zuten bertsolari guziak (batek ez beste guziak), etzutela kantatuko esan zuten. Orduan, Juraduak lau puntuan kantatzeko agindu zien.

Lau ta bost puntuko bertsoak ere ba-dira gizonak probatzeko ainbatekoak. Gañetik entzuten dauden asko ez dira konturatzen bat batetako bertsoak zer estuasun dituan Juradu baten aurrean, ark jarritako gaia bear bezela sakondu nairik.

Ez len eta ez orain, bederatzi puntuko bertso motxak ez dira gizonak neurtzeko izendatzen diranak. «Txirrita»k etzuan egundo erabilli doñu ori, aurrez aurre kantatzeko, ta erabiltzen zuan aurreko zarrik ere etzuan ezagutu.

Paperetan bai, moda izan zuan neurri orrek garai batean. Baña, papereko lan ori, gaur ere orduantxe bezelatsu egin genezake.

Aranzazu, 1961, I.

TOKI BEREZIA

Bertsolari gabeko pesta gutxi egiten da gaur Gipuzku'ko errietan. Gure erriak euskaldun ziran arte, erriko plaza zan bertsolariak kantatzeko tokia.

Gaur ere, oiturari jarraituz, plazan kantatzen da leku askotan. Ez litzake ala egin bear ordea.

Kutsatu gabe dauden erri bakar batzutan, bai; gaiñontzekoetan, ez.

San Pedro egunez Eibar'en giñan. Ogeitaka urte dira San Pedrotan Eibar'en kantatzen degula.

Arreta biziz begiratu genion aurrekaldeko entzule jendeari. Guziak batera jota, ¿eunetik ogei ba ote ziran euskeraz zekitenak? ¿Zenbat bertsoa konprendi zezatekenak?

Umez eta erdaldunez betetako plaza batean, euskaldun bertsolariak eztauka zer egiñik. Biotza ankaperera erortzen zaio: bere lurrean arrotz arkitzen da. Kantatzea baño ixiltzea ta lotsez ezkutatzea gogozkoago du.

Guri, egia esan, Erraondo-ko txistulariari gertatua bururatu zitzaigun; Kanpion aundia gendun gogoan. Urruti gelditu da gure txiki denborako Eibar; urruti gure gazte denborako Gipuzkoa.

Gaur, toki askotan, bertsolariak barrunbean jartzen dituzte: saloitan, teatrutan, zinetan...

Au da gañera bide bakarra, orain oraingoz. Barrunbe oitara dijoana bertsoak entzutera dijoa. Eleiz barruko ixiltasuna nabaituko dezu bertsolaria kantari ari dan bitarte. Arreta bizia, entzun gosea, zaletasun beroa. Ezta au bezelakorik bertsolaria animatzeko ta burua nekatzeko. Alako tokitan poz ematen du saiatzeak eta alegin guziak egiteak.

Danok dakigu askoz jatorrago ta egokiago litzakela au dana plaza libre batean gerta baledi.

Pagoari intxaurrak eskatzea bezela izan ordea, gure egunetan.

Bertsoak nai dituna dijoala entzun lezazken lekura. Dantzazale dana jolastu dedilla plazan; ardozale dana geldi dedilla ardandegian.

Au da bide bakarra bertsolari ta bertsozale guzien onerako.

Bazterrik bazter or gabiltza ta
ondo gaude antz emanik,
Ez gero pentsa ikusitakoz
konturatzen ez geranik.
Alperrikako tokian iñork
zertan egingo du lanik?
Gipuzku maite, eztirudizu
lengo Gipuzku zeranik.

Zeruko Argia, 1963-VII-21

BERTSOLARITZA DALA-TA

Aspalditxoko denboretan askotxo itzegiten da bertsolaritzari buruz. Iritziak agertzea legezkoa da oso. Ortarako askatasun osoa du gizonak, eta alaxe bear du gañera.

Iritzi-emale oietako norbaitzuk eta lerro auek izenpetzen dituena, eztaude alkarren urrean bertsolaritzari buruz.

Zearo batekoz bestera ikusten ditugu gauzak; aientzat oria dana, neretzat beltza da.

Gaur eguneko bertsolariok bi akats omen ditugu, besteak beste: «alkar gutxiegi zulatzea ta zirikatzea, ta, bertsoa asi ta bukatzen, lengo bertsolari zarrak baño denbora geiago bear izatea».

Goazen, poliki poliki, gauzak azterkatzera.

Bertsolaritzari kalterik eta erasorik ezerk ekarri badio, zabarkeriak eta ajolagabekeriak ekarri dio; alkar geiegi zirikatzeak; esan bearrekoak eta gorde bearrekoak iñongo ardurarik gabe jaulkitzeak. Garai batean bertsolariak, zoritxarrez, bekoeneko mallan arkitzen ziran

gizonak ziran; tentelū batzuri par eragiñaztea beste elbururik etzuten gizonak.

Miñ artu izan det Euskalerriko jende ika-siak, Euskalerriko jakintsuak, bertsolaritza an-kapean zeukatela jakinda; bertsolariak euske-rarentzat kaltegarri zirala, jakintsu oietako ba-tek baño geiagok idatzi izan zutela jakinda.

Enaiz batere arritzen, ordea, garai artako bertsolarien jokabidea ikusita, jende eskola-tuak begi onez ez ikustea.

Tamalgarri ta negargarri zan benetan or-duan gertatzen zana. Etzan bertsolarien errua ta falta. Orduko jendea artaraxe jarria zegon.

Bertsolarien aotatik Kristorenak eta bi en-tzuten ezpaziran, entzule aiek etzuten gozame-nik izaten.

Eziera jatorreko pertsonak, edukazio pixka bat berengan zutenak, bertsolariengandik zen-bat eta urrutiago, orduan eta pozikago.

Aitortu nai duenak aitortu, ta nai eztuenak ez, au zan bertsolaritzaren izakera orain berro-gei urte.

Taberna zulotan eta sagardotegietan ba-zituzten entzuleak, baña jende prestua bildu zi-teken tokietatik etzan deirik izaten.

«Ire andrea olakorekin ibiltzen dek; olako erritan utzi itukan zorrak pagatu bear dituk le-nengo. Atzo zein ukullutan lo egin dekan jakin-da niok. I aiz Gipuzkoa'ko alper eta moskor danen kapitana. Ik dekan abildade bakarra la-purretakoa dek».

Auek ziran garai artako bertsolariak alkarri trukutzen zizkioten itzak. Onek ondatu zituen

zearo: lokaztegitik lokaztegira ibiltzeak; lotsa galtzeak eta ajolagabekeriz gañezteak.

Orain, dirudienez, bide oietara biurtu bear degu berriro. Goi mallako gizonak dira iritzi au agertzen dutenak eta ontaratzea nai lutekenak.

Alkar gutxiegi zirikatzea omen da gaurko bertsolarion errua.

Gaurko bertsolariak, zorionez, ba-daki nun ari dan izketan eta baita nolatsu itzegin bear duen ere.

Len, jende ikasia ta edukatua bertsolariengandik nundik igesiko ibiltzen zan. Gaur, berri, bertsolarien atzetik dabil eta oiekin gozatzten du, beste edozeñekin baño geiago. Jatetxe fiñ, plaza, teatro, zine-saloi ta abarretan, bertsolari jaiak antolatzen dira noiznai.

Eleiz barrutan kantatzera ere iritxi dira gaurko bertsolariak.

Etzegoen orain berrogei urte olako zerbait esan besterik!

Goiko lorategira irten da bertsolaria. Eztu iñolako moduz lokaztegira biurtu nai, bateonbatzuk ori begi onez ikusiko baluteke ere. Txrri ta zanari beingo batez entzun niona gogoratzen naiz: urte baten buruan amairu erritan kantatzera iritxi zala esan oi zuen.

Amairu erri ta geiago illabete batean pasatzen ditu gaurko bertsolariak. Joan nai izan ezkeru, eskea ta deia izaten du beintzat.

Bertsolari batentzat, gaizki itzegitea erreza-go da ondotoxoz, ondo itzegitea baño. Txarrenak etorriko zaizkio bizkorren burura.

Alprojatu, lotsak uxatu ta ajolagabetuko ba-

litz, a zer nolakoak esan lezazken!

Jainkoagatik eztezala beintzat olakorik egin. Ainbat urteren buruan irabazitakoa egun batean galduko luke; eriotzerako epai ta sententzia izango litzake ori. Jaungoikoak aparta!

Lengo lokaztegian murgildu baño, naiago nuke sekula geiago aorik zabaldu ez; naiago bertso bakar bat geiago kantatu ez. Nik bezela pentsatzen dute nere lagun bertsolariak. Eta pozgarriena auxe da: baita erriak ere.

Gaur eztago katurik erbi truke sartzerik. Erria ezi egin da; jendeak ikasi egin du. Beste kultura malla bat dago gure egunetan bertsolaritzari buruz.

Ikutu dezagun bigarren puntutxo ori ere.

Gaurko bertsolariak lengoak baño motelagoak eta mantsoagoak omen gera; aiek denbora gutxiago bear omen zuten bertsoa asi ta bukatu egiten.

Lasarte'ko zaldia edo eun metroko korrikalariak bezela neurtu bearrekoak ote dira bertsolariak? Zein azkarrago, zein bizkorrago, zein lenago arraira iritxi? Sekula enuen pentsatuko olakorik entzun bear zanik.

Ogiak bere denbora bear du labean egosten. Baita bertsolariak ere bertsoa osatzen eta kantatzen. Nik lengo zarretan ezagutu nuen bertsolaririk onena Bautista Gaztelu zan. Etzan presaka ibiliko, baña dotore biribildutako bertsoa irtengo zan aren ezpañetatik. Presakako bertsolari onik eztet sekula ezagutu.

Kantatzen ari dan arte zerbait esaten ari dala dirudi presakako bertsolariak. Gero, asi zaite

bertso ura papelera aldatzen eta laister eragingo diozu buruari. Bertso ariña ta giar gabea irudituko zaizu.

Neurrian, berriz, besamotz eta besaluze asko arkituko dezu.

Zer alde ta diferentzi arrane dago ba azkarrenetik mantsoenera, bertsoa asi ta buka egiten?

Zer eta nola esaten duen begiratu bear zaio bertsolariari, ta ez zenbat segundotan esaten duen. Neurria, puntuak, irudipena ta argumendoa nola darabizkien; bertsoaren esanaia ta giarra nolakoa dan.

Azkar-mantsoko segundo pitiñetan juzkatu bear badira bertsolariak, gureak egin zuela esan dezakegu. Ez puntu ta ez buru duena da ori.

Bertsolariak korrikalari biurtu nai izatea; ogiari egosteko bear duen denbora ukatu nai izatea.

Alkar gutxiegi zirikatzea, ta bertsoa asi ta bukatu egiteko bear dan denbora artzea, akatsak ez baña birtuteak dirala esango nuke.

Gaur ere, batzuk ala uste ez izanarren, bertsolariak alkar tentatzen eta zulatzen ba-dakite; jendea pozik eukierazten ere bai.

Bere neurri batean danak ematen du ondo.

Iñola ontzat artu ta ametitu ez titekena lengo jokabidea da: erriaren parregarrizat barrikazar biren gañean bertsolariak jarrierazi, ta, batek aundia ta besteak aundiagoa, errespetuko jende guzia plazatik iges bialdu eraztea.

Au guzia ezagutua nago ni, oraindik ain zarra izan ez arren. Eztakizute ondo nolako bio-

tzondokoa ematen zidan.

Gaur bertsolaritzari buruz ausarditsu idazten duten gazte batzuk eta saill ortan ain aurrera dabilzan batzuk, zer dakite len gertatzen zana-ren berri?

Etzituzten ezagutu lengo bertsolariak; ezta-kite zein era negargarrira jetxi zan bertsolaritza. Nik, aietako askotxo ezagutzeko ta beurekin bein baño geiagotan kantatzeko era izan nuen.

Aiek etzuten batere errurik eta kulparik. Etzuten izan eskua nork luzaturik; etzuten izan egiazko bide erakuslerik.

Ba-zuten etorria ta almena, ba-zuten argita-suna. Bidetxigor txar batean sartu ziran bein, eta kamio zabalera irten gabe gelditu ziran.

Gaur bizi balira, beste ollar batek joko liete-ke kukurruku; erriak elituzke arlote parrega-rritzat artuko, doai bereziz jantzitako gizon ja-tortzat baizik. Amairu erri ez baña, berreun serbituko lituzteke urtean.

Ez al da negargarra, iritxi geran mallara iritxi, ta gallurrera bidean jarraitu bearrean, be-ko erreka zulora jexteko aginduak artzea?

Baña ez; egiak bide bakarra du, ta auek Ebanjeliko itzak bezelatsu dira. Irurogei urteta-ra inguratutako euskaldun danak ba-dakite onen berri. Iñork eztu ukatzeko ausardirik izango.

Erria gaillurzale da, ta bertsolariak bat dira erriarekin.

Bertsolaritzaren bizia nai du, ta ez eriotza.

Lagun gutxi arkituko dituzte, gero ta gutxia-go, lokaztegiira jo nai lutekenak.

Zeruko Argia, 1964-IX-27

KOPLARIAK

Santa Ageda bezpera izan berri degu.

Euskalerriko toki askotan, baserriz baserri,
atez ate, eskean ibiltzeko oitura da egun ortan.

Euskaldun bertsolariak izaten dute ixtimazioa egun ortarako; batetik deia ta bestetik deia.

Ateondotik ateondora asmatuak kantatuz dabilenari «koplaria» deitzen zaio, ta ez bertsolaria. Opizio berdiña dala pentsa ditekenarren, ba-da alde pixkat koplaritik bertsolarira.

Oitura orrek ba-du
makiñabat urte,
Liburu zarrak ala
agertzen digute.
Koplak eta bertsoak
aldea ba-dute,
Ori nolakoa dan
esan nai genduke

Ateondoan kantatzeko oso koplari trebeak

diranak, izan ditezke erdipurdiko bertsolari. Bat baño geiago ezagutu ditugu oietakoak.

Ateondoan kantatzen diran koplak bi puntukoak izaten dira, geienik. Bertsolariak, berriaz, gutxien dala ere, lau puntuko bertsoa osatuko dizu jardunaldi bakoitzean.

Bi puntutan trebe diran zenbaitu, lau puntu osatzeko oso larri ibiltzen dira. Lan astunegia da berentzat.

Puntuak lotzen gaitu
alde danetara,
Begira danok ondo
ixpillu ontara.
Onak izanagatik
erdi lanetara,
Alde aundia dago
bitatik lautara.

Bi anai ezagutu genitun Gaztelutarrak: Joxeta Bautista.

Aurreko bertsolari zarretan, gure gustorako, Bautista Gaztelu zan barrundatu gendunik bertsolaririk gozoen eta egokiena.

Ateondoan kantatzeko, koplari lanak egiteko, anai Joxe are ta ederragoa zala esan oi zuten ao batez. Berebiziko grazia omen zun Joxe'k familiak koplatzeko ta jendea eskuak betean diru ematera jarrerazteko. Aren egokitasuna, noski, eskatzeko!

Ta... koplari artean ainbateko izena izan zuna, etzun izan bertsolari artean. Korrikalari artean bezelatsu gertatzen da bertsolari artean.

Zenbait korrikalari eun metroan nabarmentzen da; bide ortan eztu arkitzen kideko kontrario-rik.

Zortzi-amar kilometro pasatzeko, ordea, sa-llan daude bera baño bizkorragoak. Koplaria bide motxeko korrikalaria da; bertsolaria, bide luzeagokoa.

Jaungoikoak jarria
ba-da muga pranko,
Ta maitatu ditzagun
ondo daudelako.
Batzuk motxerako ta
asko luzerako,
Danok ez gera sortu
lan berdiñerako.

Koplari onari zail zaio askotan bertsolari ona izaten.

Zazpi milla aldiz errezago da bertsolari ona koplari ona izaten. Lau puntuko bertsoa errez darabilkiñak ezpaitu eragozpen geiegirik arki-tuko bi puntukoa moldatzen. Oitura piskatxo bat artzea naikoa ortarako. Santa Agedaren bi-zitza ezagutzea, ta pamiliak nola koplutzen di-ran jakitea, etxeko nagusitik asita azkenengo morroirarte. Gaur egunean koplari lana egiten dutenak, amarretik bederatzi beintzat, bertso-lariak dira. Koplari koplariarik eztegu ezagu-tzen.

Eskean nai badira
txanponak atera,

Balio dun bat sartu
bear artaldera.
Beartuak daude gaur
lan au egitera,
Bertsolariak dabiltz
atetik atera.

Gauza guziak ba-dute beren neurri bat. Baita bear ere.

Santa Ageda bezperako eskea, euskal base-rietan batez ere, eske luzegia izaten da. Ogeitau orduko saioa egin bearrean gertatzen da bertsolaria. Negu beltzeko gau gordiñean, lautatik irutan.

Probatu eztun batek eztaki nolako tratua artzen dun bertsolari orrek etengabeko jardunaldi aspergarri ortan.

Arrazoi aundiz, Santa Ageda bezperako lana eskeintzen zaionean, ezetz erantzuten du bertsolariak. Lan ori artuko balu, ondorengo igandetako lanak utzi bearrean izango bailitzake. Eztarria garbitzen eta bere onera etortzen egunak igarotzen dira.

Ta gaur, bertsolariak, oso igande gutxi ditu norabaiteko deirik gabeak.

Batek norbere kontu
atera bear du,
Ori egiñagatik
lanik asko ba-du.
Gorputza ondatuta
eztarria galdu,
Ezetz esateakin
arrazoi ez al du?

Oiturari eutsi bear zaio. Bai orixe!

Geu gaituzute lenengoak ortarako. Oiturari eusteko, ordea, eztago ogeitalau orduan kantari ari bearrik. Arratsaldeko seirak aldean ekin lanari, ta gabeko amabiak arte, aixa egin diteke oiturari eusteko modua. Goizeko bostetan edo seiretan, itzik garbitu eziñik derrior kantari ari-tuta baño obeto.

Ta bost edo sei orduko koplaritza egitera bertsolari geienak jarriko lirake pozik, itxurantzeko soldata bat eskeñi ezkerero.

Neurri batera errenditzen jakin bear degu. Geiegikeri guziak kaltekor dirala sinistuta bizi gaitezen.

Ateondotik ateondora ogeitalau orduko eskea geiegikeri bat da.

Nola koplari, ala kuadrilla osatzen duten gazteak, danak gelditzen dira deseginda. Base-rriko mutil bikain eta sasoiko askori, au da entzuten zaietena: «Ni bein izan ninduken Santa Ageda eskean, eta orduan egin nizkian betiko pakeak. Eniotek berriz arrapatuko».

Ori, kuadrilla osatzen duten gazteak esaten badute, zer esan bear du eskeko gorabera guzia beregain daraman koplariak?

Koplariaren bizkar dijoa karga guzia; ura da ate guzitan kantatu bear duna, ura bizilagun danak koplatu bear dituna. Ark eztauka txanda egiteko lagunik.

Oitura bat galtzeak
ematen dun pena,

Izanik nai bezela
gorde ditekena.
Ez esan zuzen dala
oker dagoena,
Neurria gordetzea
bearrekoena.

Alare, Jaunari esker, asi gera pixkat zintzo-
tzen.

Oraintxe amar-amabi urte, lotsagarria zan
zenbait eskale talderen ibillera. Abarkak oñe-
tan eta bruxak soñean. Eun koloretako pañuelo
nabarmenak lepoan, eta lastozko, edo Jainkoak
daki zer klasetako sonbrero zarrak, buruen es-
talgarri. Iñauteri jaietara, karnabal jaietara
zijoazenak ziruditen, eta ez atez ate santa baten
bizitza kantatu bear zutenak. Alako parregarri-
keririk!

Periodikuz eta erradioz gogor aritu giñan
alako jokabidea zeramatenak makiltzen. Erria
berealak konturatu zan etxea baño aundiagoko
arrazoiak jaulkitzen genitula. Gaur, era artan
jantzitako gazteak eluteke limosna aundirik ja-
soko, baña, limosna ordez, merezitakoak en-
tzungo lituzteke. Erria ezi egin da. Gauz bakoit-
za bere tokian ikusi nai du. Elizan elizarako
eran, eta erromerian erromerirako eran. Ez
nastu txakoliña, sagardoa, ardoa ta ozpiña.

Bakoitzak bere ontzian ematen du ondo.
Nai dunak eska beza nai dunetik. Alkarren mu-
gak errespetatuz beti.

Zeruko Argia, 1965-II-14

GAUZAK BEREN NEURRIAN

- I -

Euskal jaialdi askotan izaten dan okerra aitatu nai nizueteke gaur.

Luzegiaren luzegiz, aspergarri egiten dira gure jaialdi asko. Bere denbora batetik kanpo ezer ezta onik.

Izan dedilla izlaririk onen eta trebeena; izan dedilla abeslaririk edo soñujolerik bikañena. Neurritz kanpo ari bada lanean, entzuten daudenak aspertu egingo dira.

Ta onak izanik au gertatzen bada, pentsa zer izango dan erdipurdikoak edo txarrak egokitzen diranean. Berriz bueltatzeko gogo aundi gabe aldegingo du jendeak.

ERREZA DA

Buru pixkatekin jokatu ezkerro, erreza da gure jendea kontentatzen.

Askotxotan egin izan det aproba, ta beti ondo irten izan zait. Jaialdi batera biltzen dan jen-

dea egarri antzean utzi bear da; berriz bueltatzeko gogo biziarekin.

Aseta, gogait eginda uzten badezu, aozabal-ka gelditzen badira, urrengorako etzazu izan aien itxaropenik. Aiek eztituzu berriz sarean bilduko, ta, okerren dana, beste askori esango diete ez inguratzeko.

Jaialdi batek bizitasuna bear du; ikuskizun eta entzunkizun desberdiñak bear dira. «*En la variación está el gusto*», esaten dute erdaldunak.

Talo utsak laister aspertzen du. Tartean urdaia sartzen badiozu, askoz ederragoa irudituko zaizu.

ZUZENDARIEN LANA

Jaialdi batean parte artzera dijoazenak ezute errurik eta kulparik.

Jai-eratzailleak, zuzendariak agindutakoa egitera dijoaz burumakur. Auek agintzen dute noiz ekin eta noiz ixildu.

Zuzendari oiek dira buruz jokatu bear dutenak. Aurrez jakin bear luteke jaialdiaren luzapena. Klase bakoitzetik komeni alako errazioa eskeñi bear lieteke erriari.

Langille geiegi ta bakoitzarentzat lan gutxiegi, ezta ona. Ezta lan geiegi ta langille gutxiegi izatea ere. Neurria artzen jakin bear, erria gozamenetan edukitzeko.

LENGO BATEZ URRUÑA'N

Bidaso'z bestaldeko erri paketsu ta atsegiñean izanberri nazute.

Bertsolari jaialdi bat antolatu zuten urteroko gisan.

Langille geiegi giñan, batetik, eta lan geiegi agindu ziguten, bestetik.

An bildu zan jendea zazpi milla aldiz gustorago edukieraztea etzan lan gaiztoa. Aski zan lan gutxiago jartzea ta bertsolarientzat luzipen geiagoko gaiak aukeratzea. Soro txarrean nekazari onik ezta. Zenbait gaietan bear ainbatean luzituko dun bertsolaririk ere ez.

Luzea, astuna, nekagarria izan zan Urruñako jaia entzuten egon ziranentzat eta kantuz aritu giñanontrat.

IRITZI BAT

Baiona'n argitaratzen dan Euskal astekarian, «Herria'n», beste zenbait gauzen artean, Urruñako berriemaleak, korresponsalak, auxe idazten zun:

«Egon gira gure baitan ez ote litaken hobe pertsulari hutsen arteko saila moztea han hemenka, zonbeit kantu eskualdun edo holako zerbaitez».

Len esan dedana berritu bear. Talo utsak laister aspertzen dula; urdai pixka bat ondo le-torkela tarterako.

Baña, talo utsa izanik ere, betekada aundigirik egin ezean ondo egiten da lo. Zortziren lekuan lau bertsolari izan balira Urruñan, eta lan egokia agindu, bere neurri batean, etzan iñor aspertuko. Egon zaite ortan seguru.

Zeruko Argia, 1966-III-6

GAUZAK BEREN NEURRIAN

- II -

Ernandorena jauna, jun dan aspalditxoan, artikulu asko ari da argitaratzen bertsolarieri buruz. Eztago esan bearrik borondaterik one-
nez ari dala lan ortan, eta bertsolarien ona bes-
terik elukela nai gure euskaltzale zintzoak. Len
ere ezta gutxi lagundua.

Alare, jaunak, kanpai ots aundiegiak dirala
esango nuke ain su txikiarentzat. Eztauka iñork
orrenbesteraño zertan estaturik eta zertan kez-
katurik.

Egi bat dago argi ta garbi: bertsolaritza
egundo iñoiz eztala egon gaurko mallan eta neu-
rrian; egundo iñoiz eztala izan gaur aña zaleta-
sun bertsolariari entzuteko ta bere lanari dun
meritua aitortzeko.

* * *

Oraingo zarata guzia uskeri batetik sortua
da.

Aintzat artzea merezi etzunik ez tet esango, baña motibo xixtriñ ura etzan olako arrabotsak merezi zituna.

Urruña'ko bertsolari jaialdia (aurtengoa alegia) luzeegia ta aspergarria iruditu zitzaiola idatzi zun «Herria», mugaz aruzko asteroko euskaldunean, jaialdi artan izan zan norbaitek.

Onek zer ikusi dauka bertsolaritza ondame-
nean eta «krisisean» dagola agertu nai izateko?

Bertsolariak ez baña, aieri agintzen dieten jai eratzalleak izaten dute erru guzia. Gauzari bere tamaña artzen jakin ezean, jaialdi onik eta jaialdi atsegiñik ez titeke izan mundu ontan.

Berdin da munduko orkestarik onena jarri, edo munduko teatrurik zoragarriena eskeñi. Neurritz kanpoko luzeera beti da astun eta pixu, naiz bertsolaritza eta beste zer nai ikuskizun eta entzunkizunetan.

* * *

Jaungoikoak ba-daki mugaz aruzko bertsolari jaialditan zenbat aldiz artu dedan parte. Jaialdi aietako amarretik bederatzi, danak ez esateko, luzeak eta aspergarriak iruditu izan zaizkit neri.

Jendea pozik eta justora egoten zala? Entzuleak berekiziko gozamina izaten zutela?

Eztet ezetzik esango, danok gusto ezberdi-
ñetakoak gera-ta.

Baña jaialdi aiek zazpi milla aldiz geiago luzituko zuten eta dobleko sustantzia izango zuten, laburrago, gozoago ta biziago egiñik.

Au, jakiña, ezta bertsolarien egitekoa, eratzalleena baizik. Auek izendatu bear dituzte gaiak eta auek ezarri bear dute gai bakoitzaren luzamena. Ortarako egokiena zer dan badakizute?

Jaiertzaille nagusia bertsolaria izatea, edota opizioaren berri ondo dakiña izatea. Ez ori bakarrik; entzule jendearen «sikologia» ezagutzea.

* * *

Eskolakiko ta eskolagabeko bertsolarietzaz ere asko itzegin eta idatzi izan da. Ernandorena jaunak ere ikutu du gai au, baña aren irizpidea ta nerea eztira berdiñak.

Bat bersolaria dan ala ez, ortan dago gorabera guzia. Berezko bertsolari ezpala dakarkiñarentzat, zenbat eta geiago jakin, zenbat eta eskolatuago izan, orduan da obe, orduan da probetxugarriago.

Berezko bertsolari ezpal ori eztunarentzat, berriz, alperrik dira munduko eskola danak. Jakituna izan edo ezjakiña izan, bertsolaria ezta nak sekula eztu bertso tajuzkorik moldatuko. Pagoari intxaurrak eskatzea alperrikakoa da; artarako jaio eztanarekin bertsolari bat egin nai izatea ere bai.

* * *

Gutxiegi jakitea da bertsolari danon alderdi argala; nere ta beste gañontzekoena. Zaletasu-

nak alaxe bultzata, nere gisa pixkat landuaz irixi naiz naizen pixka izatera. Loari ordu asko kenduta, al izan dedan guzia irakurrita. Esker-rak ematen dizkiot Jaungoikoari zaletasun orinigan piztu zulako.

Zerbait eskolatua danarengadik batere eskolatu gabea, nola ezta ba alderik egongo?

Irakurri itzazute astiro, banaka, banaka, Bilintx'ek eta Pedro Maria Otaño'k jarritako bertsoak, eta baita aien kideko ziran eskolatu gabe-koenak ere; Udarregi, Pello Errota, Txirrita ta abarrenak.

Zerutik lurrerañoako aldea billatuko dezute.

Naikoa ta geiegi egiten zuten, ori bai, motibo geiago gabe egiteko, Udarregi'k, Pello'k, Txirrita'k eta beste ainbatek, baña eskallera malla asko daude oietatik Bilintx eta Pedro Mari Otaño'ren jarlekura. Bi auek askoz gorago daude.

Otaño'k aurrez aurre, aotik aora, bertso gutxi kantatu zula.

Ez ordea bertsolaria etzalako ta aren bertsoak besteenak baño beteago ta sendoagoak etziralako. Etzun eztarririk, batetik. Argatik ezarri zioten «Katarro» gaitz-izena; ta, bestetik, bere urterik onenak Amerika'ko lurretan egin zitun. Ura ezin ziteken emengoak bezela, erri-rik erri kantuz aritu; ark urrutian osatu zun bere kabia ta burura zetozkion bertsoak paperean jartzen zitun. Or gelditu zaizkigu betiko.

Bilintx'en gorputza ta arpegia ere etziran erriz erri ibiltzeko modukoak. Baña, iñoiz bat

batetan ark botatako bertsoak ere or ditugu ixpillutzat.

Aotik aora nabarmendu ezpaziran, etzan trebetasunik etzutelako; beste batzuk izan zuten egokierarik izan etzutelako baizik.

* * *

Eskolak bertsolariari egoak mozten dizkio-la? Bertsolari sena galdu egiten dula? Ongarri izan bearrean jakitea kaltegarri dala?

Jainkoarren etzazutela olakorik sinistu! Berez bertsolari danari, moztu ta laburtu ez baña, luzatu egiten dizkio egoak eskolak.

Berez eztanak, berriz, alper alperrikakoak ditu munduko liburu guziak.

Dakigun baño amar aldiz geiago bagenek, askoz biribillagoak izango lirake gure bertsoak, eta erria bera ere gero ta jantziago egingo litzake, gero ta «ederraren» zaleago agertuko litzake.

Jai-eratzaille askok, bertsolari asko eramarekin dana egiña dagola uste izaten dute. Sei, zortzi, amar, izan ditezela kantuan, eta jaialdia askoz bikañagoa izango dala.

Oker aundi bat da au ere. Bertso saio onak eta baliozkoak izateko, bi bertsolari izatea bezelakorik ezta. Aiek iaioak eta trebeak izan ditezela. Gai batekin asi ta lau edo sei bertsolari diranean, azkenengoari txanda iritxi orduko esateko guziak esanak daude gai artaz. Beste bide bateri ekin bear diote azken aldetik diranak. Onek ezta nasketa besterik sortzen bertso-

lari artean. Berrero txanda iritxi orduko, lenengoak oztuak daude. Bero artan ba-zituzten gauz ederrak buruan, baña besteak arrastotik irten dira, ta beranduegi da aiek kantatzeko. Berri berrero asi bear sortzen.

Benetako bertsozaleak, bertsoaren berri sakon dakitenak, bi bertsolari on ari diranean gozaten dute; orduan izaten dituzte eztaiak.

Lau ta sei bertsolaritara ezker aia galdu egiten da ta danak berdiñak izaterik eztagolako, asko galtzen da bertso saioaren kalidatea.

* * *

Jartzen dan jaialdia jartzen dala, bi bertsolari on sekula eztira aspergarri izango. Aiek pozik edukiko dute beti entzule jendea.

Lau bertsolari izanik ere, biña biñaka jarri bear lirake ekiñaldiak eta neurri batean errenditu. Geiegirik ez kantatuerazi; lan geiegirik ez agindu bertsolarieri.

Urruña'ko jaialdian era ontan jokatu izan balira eratzalleak, entzuleak etziran aspertuko. Zearo batekoz bestera irtengo ziran gauzak.

Ni asko poztu nintzan Urruña'ko jaialdiaren kritika «Herria» asterokoan irakurri nuncan. Garaia zan norbaitek zerbait esateko, beti beltzari zuria esanaz ibili gabe.

Bertsolaritzak beerakoa dula, bertsolaritza «krisisean» dagola ta abar, berriketa arin batzuk dira. Idiak lan onik egingo badute, itzai on bat bear. Bertsolari artaldeak luzituko badu, artzai on batzuk bear.

Gaiak izendatzen, luze-laburrean neurria artzen, eta entzuleak gozamenetan edukitzen jakin bear.

Osos errez iritxi ditekena da au guzia. Estropalarien patroï izango danak arraunketaren be-
rri ondo jakin bear du. Bertsolari jaiak antolatu
nai ditunak, bertsolarien gidari izan nai dunak,
bertsolaritza zer dan ondo jakin bear; opizioa
ondo ezagutu bear, ezer itxurazkorik egitea nai
badu beintzat. Arrantzaleak mendira ta ar-
tzaiak itxasora asten badira, ez arrai ta ez ardi
geldituko gera.

Mediku artean ere batzuk belarritako ta bes-
teak biotzeko espezialistak izaten dira. Bakoi-
tzak bere sailla ondo eraman dezala ta gaxoa
sendatuko da.

Zeruko Argia, 1966-V-29

BERTSOLARITZA ETA KULTURA

Iñork maite badu gure erria, batek maita lezaken neurrian maite dedala uste det. Bere birtute, akats eta guzi maitatu ere. Dan bezelakoxea izanik, alegia.

Baña, zorigaitzez, zenbat kankaillu, zenbat burugogor, zenbat kristau amorragarri oraindik ere!

Batek kulturik ez izatea bat da, ta kulturaren etsai amorratu izatea beste bat. Olakoak dozenaka aurki ditezke pausotik pausora. Dakian gizona, zerbait dan gizona, izu ta lotsati ikusiko dezu beti.

Ezjakiña da arrokeriz gañezka ibiltzen dana, ta mundu guzia ankapean duala iruditzen zaiona.

Euskalerriko taberna zulotan, zenbat eta zenbat Grezia'ko zazpi jakintsuak oso motx uzten dituztenak!

Iru-lau ardo ttanta edan ezkerro, oiek eztaki-

ten gauzarik ezta; zeru-lur, linbo ta gañontze-koak, eztute oientzat ezkutu ta sekreturik.

Nere bizitza guzian, ezjakintasan argalez lotsatu izan naiz.

Iñork baño obeto baitakit noraño iritxi ninteketan; zein utsa ta ezereza naizen.

Etenik gabe berriketan ari diran kankaillu oien iritiz, berriz, eskolatua izatea da nere alderdi bakarra.

Eztet lotsarik gizonen eta Jaungoikoaren aurrean aitortzeko.

Amaika urte bete nituan arteraño bakarrik zapaldu nuan eskola. Gero, ogia irabazteari ekin bear izan nion, al nuan bezela.

Ikasteko, irakurtzeko, zerbait argitzeko, zaletasun aundia izan dedala?

Eztaukat ukatzerik orixe. Gau ta egun, libre izan ditudan une guziak ortan enpliatu ditut.

Gaur dakidan pixka, (gauza utsa ta ezereza izanarren), zaletasun eta gogo orri esker dakit. Nerekasa ta nerebizkar, al izan dedan moduan iritxi naiz gaurko malla exkax eta melar ontara. Iñork etzeukan au eragotzia. Nere gogo ta zaletasuna izan ezkeru, iritxi zitezkean beste danak ere.

Gure artean au billatzen det lotsagarria.

Len esan bezela, kulturik eta jakintzarik ez izatea bat da, ta kultura ta jakintzaren etsai amorratu izatea beste bat.

Nere naigabe ta pena bakarra, kulturaz bear bezela ez osatua izatea da; utsa ta ezereza izatea.

Zer esaten ari diran eztakiten astakirten as-

kok, ordea, berak eztutena gorrotatzen dute; kulturaren etsai agertzen dira, ta... ni ere (gizarajo alenak), kulturadun gizontzat jotzen naute.

Naiago nuke gezur ori egia balitz, kaikutzar oien jardun guziak baño.

–Eskolatua dalako egiten dik orrek bertso-tan; ikasia dalako, besteak baño geiago dakiala-ko.

Zazpi anai ta iru arreba izan gera familian. Mai batean jan izan degu danok; tellatupe batean etzan izan gera. Eskolan ere edade berdiñerarte ibili: amaika urterarte; Jaunartze nagusia egin arte.

Nere senidetan ezta beste bat bertso bat moldatu lezakenik. Bertsolariak eskolak eta kulturak sortu al balezazke, guk ez genduke egundo aorik zabaldu bear.

Millaka dira euskaldun apaiz, fraille, jesuita, abogadu ta sendagilleak. Obispoak ere ez gutxi.

Bertsolariak zenbat, oien artean?

Gai bat izendatu, ta bat batean bertsoz erantzun lezatekenak zenbat?

Aurrera joan baño lenago beste zerbait esan bearra dago.

Kulturik eztutenak, eta kulturaren etsai diranak, bertsolaritza lokatzapean ikusi nai luteke, gure txiki denboran zan bezelaxe.

Moskorkeria, lizunkeria, lasaikeria ta nabarmenkeria nai lituzteke nagusi.

–I olakoren andrearekin ibiltzen aiz; i aiz moskortu intzan batean besoa autsi ukana; i aiz olako erritan oinbeste egunetako ostatua zor

dekena; i aiz, eurerik ezta, besteren alkandora-
rekin ibiltzen aizena; i aiz alper guzien kapitana;
i aiz ingurutako litxarrero ta lapur guzien bu-
rua...

Garai batean (au da negargarria), klase on-
tara mintzatzan etziran bertsolariak, etziran
bertsolariak.

Oraindik ere, zorigaitzez, badira gure
errian, bertsolaritzaren egiteko nagusia au dala
uste dutenak; bertsolariak lokaztegitik eta si-
maurtegitik kanpora ikusi nai eztituztenak.

Giro ortan azitako ta ezitakoak giro orri gus-
to artzea ezterizkiot arrigarri. Malla oietatik go-
ra igotzen diran bertsoeri beren balorea neur-
tzeko ezpaitira kapaz.

Ba-dira, ordea, beste norbaitzuk, kultura-
dun eta jakitun izanarren ere, euskal bertsola-
ritza berriro lokatzetan eta ustelkerian ikusi nai
lutekenak, eta andik kanpora zer egiñik ezuala
uste dutenak.

Gutxi dira, zorionez, eta gero ta gutxiago.
Bide ortara jota ez luteke bereala beteko Anoe-
ta'ko frontoia.

Jaialdi bakar batekin nazkatuko bailuteke
jendea, berriro inguratzeko gogo aundi gabe.

Erria ezitzen ari da. Gaur eztago katurik
erbitzat sartzerik. Aosapai txarreko kankaillu
batzuek eztera paltako sekula, baña amarretik
bederatzi, orain ari da konturatzen egitazko
bertsolaritzaren bidea zer dan.

Milla bider esan izan dedana berritzera noa.
Nere txiki denboran ezagutu nuan bertsolaritza-

ren oñarrietan segi baiño, naiago nuke egundo bertso bat geiago ez kantatu.

Karmelo Etxegarai batek bertsolaritzaren kontra idatzi zituanak etziran bertsolaritzaren etsaia zalako, bere denborako bertsolaritza ain narrats, baju ta arlote ikusten zualako baizik.

Min eman izan didate Etxegarai jaunak idatzitakoak, baña seguru nago, gaur bizi balitz, bertsolarien aldezele ta defensorerik sutsuenetako bat izango litzakela.

Iñoiz izan eztiran bezin ugari ditugu bertsolariak.

Eta danak, al duanak al duan neurrian, egitazko bideari ekin diote. Loretik lorera, lilitegitik lilitegira ibili nai dute, berriro simaurtegira joan gabe.

Nere denbora joan samartu da, baña jokabide onek ematen didan pozak eztu neurririk.

Ba-det itxaropen landare berriak sortuko zaizkigula; bertsolari sagastia mendu berri, indartsuz aberastuko dala.

Zer oberik euskeraren udaberria geureganatzeko?

Esan beza nai duanak nai duana, baña, gure izkuntzaren lenen soldaduak bertsolariak ditugu gaur ere.

Zeruko Argia, 1968-II-25.

BAKOITZARI BEREA

Bizkaia'n argitaratzen dan «Anaitasuna» aldizkarian, Xabier Gereño idazle zintzo ta argiaren lan bat irakurri det.

Euskaldun bertsolariak ez omen dakite gaurko problemak erabiltzen.

Euskaldun abeslari berriak ari omen dira, zorionez, bertsolarien utsunea betetzen. Abeslari gazteak, beren gitarrarekin, gaztedi dana berenganatu omen dute.

Berenganatu ta dardaraz jarri.

Zorionik beroenak eman bear ori egin dute-neri. Danen premian baita gure erria.

Au da nik Xabier Gereño'ri errespeturik aundiñez esan nai niokena:

Txina'tik Donosti'ra baño alde aundiagoa dagola euskal abeslari batengandik euskal bertsolari batengana.

Abeslari batek egundo sekula ez lezake bete bertsolari baten tokia; ezta bertsolariak abeslariarena ere.

Abeslari batek, jendearen aurrean, aurrez ondo pentsatu ta ikasitako kantuak abesten ditu. Euskal bertsolari batek, une berean osatu bear ditu esateko guziak.

Egitazko bertso-zale diranak, bertso on, mardul eta borobillak entzutera juten dira plazara, tabernara, teatrura, edo bertsolariak kantuz ari diran tokira.

Bertsolari batek, edo bertsolari izeneko batek, oso gai sakon eta interesgarriak erabili lezazke; problemarik garratzenak azaldu lezazke jendearen aurrean. Zer aurreratzen du gai sakon eta interesgarriak autatuagatik, jaiotzen zaizkion bertsoak kaxkarrak eta txarrak badira?

Benetako bertsozaleak naiago du zazpi milla aldiz, gairik ariñenean izanda ere, bertso on eta sustantzizkoak entzun; ondo borobildutako bertsoak, alegia.

Geitxo esatea ezpalitz, auxe botako nuke.

Gaurko gazteak, zorigaitzez, amarretatik zortzik, eztakite bear ainbat euskera, bertsolari on batek kantatzen dun guzia osorik bear bezela jasotzeko.

Euskera ondo ere ondo jakin bear da, eze-ren galerarik gabe bertso on bakoitzari bere sustantzi osoa ateratzeko.

Besterik da abeslarien lana; besterik da gitarrenaren laguntzaz gaur kantatzen dana.

Gure lurrean euskerarik iñork jakin badu, «Orixe» zanak, dudarik gabe.

Ta «Orixe'k» beingo batez, Añorga'n, auxe esan zidan:

Estu ta larri ibiltzen zala bertsolariak erabil-

tzen zituzten esakera ta itz-joko (*giro*) batzuri beren esanai osoa artu eziñik.

Bertsolarien aurrean jartzen zanean ikusten zula euskeraren aberastasuna zenbaterañokea zan; baita bear ainbat euskera etzekila ere.

«Orixe» baten aitormenak era ontan izanik, zer esan bear dute gañontzekoak? Bertsozale purrukatua dana, bertsoan entenditua dana, bertsoa jatera ta ausnartzera jutun da. Bertsoari ondotoxoz balore geiago emango dio gaiari baño. Gai egokia, eguneko gaia, ta bertso bikaña izan ezkeru, orduan da obe.

Amaika aldiz gertatu gera gu burura etorritakoak esan eziñik.

Etziran gaurko erreztasunak orain ogei urte. Ta, garai artan norbaitzuk euskal giroa sortzen alegindu ezpalira (naiz ta eragozpen audienen artean), gaur, bear bada, euskal abeslariak etzuten entzulerik izango.

Bazter guziak menderatuak edukiko zitun erderak.

Neu naiz lenengoa euskal abeslariak txalotzen. Kantuzale itxuak gera euskaldunok. Ezer baño geiago maite degu abestia.

Bertsoa ere kantua da, bide batez.

Doñu apalagoak, musika pobregoa, erabiliko du bertsolariak zenbait belarrirentzat.

Eztio ajola. Bertsozale osoa dana, bertsoa neurtzera dijoa, ta ez bertsolariak darabilkin doñua edo gaia.

Iñoiz gerta ditezke irurak batera. Bertso ona izatea, doñu atsegiña erabiltzea, ta gai sakona gertatzea; egitazko problema bat ikutzea.

Au da bukatzeko esan nai nukena: aparteko askak bear dituztela bertsolariak eta abeslariak. Oso senidetasun gutxi dutela bien artean.

Zeruko Argia, 1968-VI-23

ZERGATIK OTE?

Lengo egun batez, atsegiñez irakurtzen nuen «La Voz de España» egunkarian, nere adiskide zintzo Iñaki Linazasoro jaunaren artikulu bat.

Erria bertsolariengana murgildua dagoela esaten zigun, euskal olerkariak (poetak) oso aitamen gutxi duten bitartean.

Ukatu eziñezko egia da au.

Baña... gertatzen dana, zergatik gertatzen ote da?

Gabriel Zelaia poetatzaz oroitu nintzan. Gabriel Zelaia'k erderaz idazten ditu bertsoak, eta izen aundia du gaurko poeten barrutian.

Zelaia'k au idatzi zuen baingo batean:

«Bearrena ez da erriatzaz itzegitea, erriarekin itzegitea baizik».

Gogoan artzeko itzak dira Gabriel Zelaia'renak.

Gazteleraz (kastellanoz) idazten duen oler-

kari ospetsu batek au badio, zer esan bear du euskal olerkari batek? ' 1

Euskal bertsolariak, bakoitzak bere mallan, erriari itzegiten dio, ta erriarekin itzegiten du. Erriak ondo ulertzen (konprenditzen) du bertsolariaren lana, naiz kantuz eta naiz letraz.

Au bera esan ote dezakegu olerkarien lanetzaz?

Zenbat euskaldun dira gure olerkari galle-
nen lanak bear bezela konprenditzeko ta txas-
tatzeko gai diranak?

Ez ote dute egan altutxotik egin?

Gaztelera (kastellanoa), milloika pertsonak itzegiten dute. Euskera, millaka bakar batzuek. Eta... zenbatek irakurri? Zenbatek idatzi?

Gure salbazioa bide errezetik dago. Erriarekin itzegiten ikasi bear degu, izkuntzaren ona nai badegu. Gañontzean, alper-alperrikako lan eta nekeak artuko ditugu.

Zeruko Argia, 1969-III-23

«XENPELAR-SARIA» DALA-TA

Euskaltzaindiak, Euskal Akademiak, urtero bezela, «Xenpelar saria» banatu nai luke aurten ere.

Bertsojartzailleentzat jarritako saria da au, dakizutenez.

Bertsolariak era bitakoak izaten dira: aotik-aorakikoak, eta paperetan jartzen dituztenak. Azkenengo auek daukate emen zer ikusia.

Aotik aorako bertsolariek ere izan ditezke bertsojartzaille onak. Ala ziran Xenpelar, Txrrita, Udarregi ta abar.

* * *

Aspaldiko urte auetan, zorionez, bi klaseta-koak ugaldtu zaizkigu: aozkoak eta paperekoak.

«Zeruko Argia» onek astero astero bertso sail bat argitaratzen du.

Txandarik artu eziñik dabiltz bertsolariak.

Batzuk bidali ta besteek bidali, danentzat ainbat toki ez, eta norbaitzuk zai egon bear.

Galdera bat orain:

«Zeruko Argiak» ba ote du beste sail bat bertso saillak ainbat irakurle duanik?

Firma batzuk balio aundikoak daude gainera. Danok ezagutzen dituzute.

Ez daukat izenak ematen ari bearrik.

* * *

Bertsojartzailleok, entzun!

Aurtengo «Xenpelar Sarian» parterik artu nai baduzute, zuen lanak apirillaren amargarren egunerako bidali bear dituzute.

Nora?

Zuzenbide ontara:

Academia de la Lengua Vasca. Palacio de la Diputación. San Sebastián.

Maiburua, Juradua, Euskaltzaindiko jaun auek osatzen dute:

Aita Onaindia. Pedro Berrondo, ta Juan Garmendia «Zeletak».

* * *

Juraduko izatea ere ez da gaur jolasa.

Kalidade oneko bertso asko argiratzen da; sekula baiño obeak, nere iritzirako. Nai duanak pentsa dezala nai duan modura. Nik nere senti-pena esan dut.

Ondo ezagutzen ditut lengo bertsolarien lanak; bai gaurkoenak ere.

Lengoek etzutela gaurkoak bezelako bertsoak jartzeko motiborik?

Ni naiz ori aitortzen lenengoa. Naikoa ta geiegi egin zuten aiek beren denboran. Aiek izan ez balira, gaurkorik etzan izango.

Moda txar bat dago indarrean gure egune-tan.

Norbaitzuren iritzirako, joan dan eun urte ontan baliozko gauzarik ezertxo ez da egin euskal literaturan.

Atzo goizean asi ziranak dira baliozkoak. Beste guziek, utsaren urrengoak.

* * *

Euskal bertsolariak ez du pekatu ortan erori bear.

Ez inolako moduz!

Itzalik, errespeturik eta onorerik aundienak merezi dituzte bideak ideki zizkiguten aiek.

Benetako maixutzat jo bear ditugu beti.

Ikasle batzuk, orain, maixu aien lanak berdindu, edo gaillendu dituztela?

Anbat obe gure izkuntzarentzat!

Guztiok poztu bear ginduzke berri onek.

Zuek, bertsojartzaille gazteok, edo urtetan zerbait eldutakuok, aurrera artu dezuten bide txalogarrian!

Berebiziko irakurle pillak dituzute gaur «Zeruko Argian».

Aita Zabala, bere aldetik, ez da lo egongo. Gaur edo biar, zuen bertso bikain oriek liburuetan azalduko dira.

Periodiku ta aldizkarietako lanek iraupen txikia izaten dute.

Liburuek or gelditzen dira betiko.

Euskaltzaindiak, iñola al badu beintzat, «Xenpelar Saria» azitzen alegindu bear du. Bi milla pezta ezer gutxi dira gaur egunerako.

Zearbait geiago merezi dute gure bertsojartzailleek.

Zeruko Argia, 1970-III-22

GAZTEAK BEAR DITUGU

Egundo sekula etzan izango Euskalerrian orain ainbateko bertsolari talderik.

Asko ta onak ditugu, zorionez, gure egune-tan. Ez dit onetxek poz makala ematen.

Ogeitaka urtetan ibili giñan lagun «Uztapi-de» ta ni Euskalerria serbitzen. Gelditu gabe, ara ta onera.

Gu erri baterako itza emanak, eta beste toki batetik arren da arren, erreguka, gure orde-zko bi bertsolari bialtzeko, geu libre ezpagiñan.

Ta... ezpazegon, nundik bialdu?

Jaunak daki zenbat aldiz gertatu giñan one-la.

Gaur ez dago olako burukomiñik. Zortzi erritara bertsolariak bialtzeko deia etorriko ba-litz, bereala aurkituko genituzke zortzi bikote.

Aukera dago, ta aukera dagonean, errez konpontzen dira arazoak.

Danak bateratsu sortutako bertsolariak di-rala esan diteke. Urte gutxiren tartean bertsola-

riak azaldu ziran an da emen. Gipuzkoan bezela Bizkaian ere, ala bearrez.

Mugaz aruzkaldetik etzan artaraiñoko erneketarik izan.

Aspalditxokoak ditugu «Mattin» eta «Xal-bador», gure artean ain ezagun diranak.

Inguruan iñor gutxi dute: bakarrik gelditu dira.

Astoria'ko jaialdi zoragarri artan, San Jose egunez, alegia, burutapen auetxek izan nituen:

Orain-oraingoz –nion nere kokorako– oso ondo gatxaudek bertsolariz. Asko zeuzkagu ta jatorrak, trebeak.

Baiña... zer gerta bear dik biar edo etzi?

Ba al zetorrek segira emateko ondorengorik?

Au komeni dek orain: amasei urtetik emeretaira tartekoak, buru argiz jantziak eta bertsolari sena berezikoak.

Konprendi, «Basarri» –nion nere buruari–, ez duk ik uste bezin erreza.

Giro on bat sortu ezkerro ta erreztasunak jarri ezkerro, ez duk ain zailla dantzari taldeak, txistulari taldeak, soñujole taldeak eta abeslari taldeak ugaltzea.

Saiatuaren poderioz eta maixu onen bidez, ikasi egiten ditek, trebetu egiten dituk.

Batzuk besteak baiño iaioagoak izango dituk, jakiña, baiña danak beteko ditek dotore antzean beren lekua.

Ik ondo dakikanez, bertsolariekin etzegok olakorik.

Bertsolariak jaio egin bear dik; bere seillu berezia bear dik.

Seillu ori ezpadu, berezko ori ezpadu, alper-alperrik alegintzea duk. Bost xentimo ez ditek balio munduko maixu danak. Artarakoa ez danarekin bertsolari bat egingo duen maixurik ez duk jaio oraindik. Gero ere ez duk jaioko.

Gazteen artean neurketak antolatzea kome-ni duk: oieri ateak zabaltzea, luzitzeko aukera ematea. Sari onak banatu beren artean: poztu ditezela, indartu ditezela.

Agian, iru edo lau urtean ez duk sortuko balio duen bat, baiña bosgarren urtean baletxei-kek danok arrituta utziko gaituzten norbaitzuk agertzea.

Askotxok esaten zian euskal sagardotegien eriotzak bertsolarien eriotza adieraziko zuela.

Etziteken asmatu zorionez, ala mintzatu ziranak.

Il ituan sagardotegiak baiña bizi dituk bertsolariak.

Sagardotegiak bertsolari sorketan on aundia egin zutela etzegok ukatzerik. Garaian garai-koak izaten dituk.

Lengo denbora aietan sagardotegiak ituan bertsolari eskola edo akademi.

Dana aldatzen ziak urtetik urtera, egunetik egunera.

Seminario batean egon litxei-kek bertsolari bat; baita Unibersidade batean ere.

Ezagutzen dizkiagu alakoak. Bizkaitar bi da-dituk ur oietan paseak eta bertsolari bikain diranak.

Amazazpi-emezortzi urteko gazteak bear
dizkiagu utsuneak beteaz joateko.

Ez ote dituk sortuko?

Ni baietzean negok.

La Voz de España, 1971-III-25,

Zeruko Argia, 1971-IV-4

BERRI POZGARRIA

Egunerokoetan irakurri genduenez, ogeibat bertsolari bildu ziran oraintsu Errenderi'n.

Anton Valverde zanaren oroiz moldatutako jaialdia zan, Valverde jauna ain bertsozalea zalarik. Bertsolari gazteentzat moldatutako norgeiagoka.

Jaialdi baterako bertsolari geiegi. Jai astunegia izateko arrixkua.

Pozgarria da, ordea, ainbat bildu zirala jakitea.

Oietatik iru edo lau itxurantzeko irteten badira, zein mesedegarria Errenderi'ko billera!

ERRIAREN ARNASA

Gaurko euskaldun «intelektual» batzuentzat folklorekeri merke bat da bertsolaritza; lurperatu bearrezko zerbait.

Bertsolariarekin batera, gure izkuntza bizia lurperatu nai dute, iñork entendi ez lezaken

izkuntza trakets bat sortu asmoz dabiltzan bitar-
te.

Gorrotagarri zaigu erri-euskera, euskera bi-
zi, euskera errikoi, euskera gatz eta piperduna.

Ordaiñez zer ematen zaigu?

Arri zar eta traste zarrak bezela euskera Mu-
seoan gorde bear badugu, ez gera alperrik ari!

Itzali dezagun beingoz gure erriaren arnasa.

Azken «puntilla» emaiogun euskerari, il ezi-
ñik dagon zezenari bezela.

Danok gera pekatari, ta barkapenik ez duen
pekatua da gurea.

Erriari bizkar eman diogu, ta erriak guri biz-
kar eman digu. Arrazoi aundiz gaiñera.

Euskeranganako nazka sortzen ari gera gel-
ditzten diran euskaldun bakarretan.

Iñolaz ulertu ezin duten euskera eskeintzen
diegu; nekatu egin dira, aspertu, gogaitu.

Ez dute gurekin ezer jakin nai.

Eskolatuak izan ezik ere, erdera askoz erre-
zagoa zaiote; naiago dute artan irakurri.

Nun gaude gu egunetik egunerako atzera-
pen ikaragarri au ez ikusteko?

Zertan gabilta alkar engañatzen, gure iz-
kuntza berebiziko indarrak artzen ari balitz be-
zela?

AURRERA, ZUEK!

Aurrera zuek, bertsolari gazteok.

Aundi-usteko askok etzaituzte aintzat artu-
ko; goitik beera begiratuko dizuete; iseka ta
burla egingo dizuete, bear bada.

Lau itz itxuran tolestatzeko gai ez diranak

izango dira sarritan orrelakoak.

Eldu zuek erri-izkera biziari: jaulki burura datorkizutena.

Euskeraz ezjakin utsak gerala-ta, alfabetazio kanpañak egiten ari gera.

Geuk aitortzen dugu tutik ez dakigula; aurtxoak katonarekin bezela asi bear dugula gure izkuntzarekin.

Ta, bienbitartean, al genezakenik euskera-rik xamurren, errezen eta errikoiena egin bearrean, «pekatu mortala» baiño astunagoko euskera darabilkigu.

Euskera ongien menderatzen dutenak, euskera erabiltzeko erreztasunik geien duten gizonak nundik jipoituko gabiltza.

Egunen batez konturatuko gera zenbat astakeri ari geran egiten.

Baiña, agian, beranduegi izango da orduan.

Museora baztertua izango dugu euskera.

Zentzua erabat galtzen badugu, gureak egin du.

Gure gaurko jokabidea ikusita, galdua ote dugun esan diteke.

Samintasunez gaiñezka erabiltzen dugu gai au. Geure burua pekatari egiñaz gaiñera, gutxi edo geiago danok kutsuturik gauden ezkerok.

Zertarako ikasketak, zertarako jakinduria, zertarako zientzia, bearrena palta bazaigu?

Zer da bearren ori?

Zentzua ta euskal sena, ta biak ari dira gurgandik urrutiratzen. Gero ta geiago, zoritxarrez.

Zeruko Argia, 1971-V-30

KOPLA ZARRAK

Joan dan Iarunbatean, interes aundiko itzal-di bat izan zan Oiartzun'en.

Juan Mari Lekuona apaiz jaun prestua izlari.

Gure erriko kopla zarrak artu zituen gai modura. Ba-da, ordea, beste zerbait aitamenak merezi dituen.

Oiartzun'en, itxurak diranez, bertako gizon eta emakumezko batzuk, izlariari laguntzekotan ziran. Izlariak agindutakoan, gazte denboran ikasitako kopla zarrak kantatzea, aien egitekoa. Entzuleak ondo konturatuko ziran gure kopla zarrak zer diran, aiengandik entzunaz.

Zorion beroak merezi ditu Oiartzun'go «Intxitxu» antzerki taldeak eman duen pauso bikañarengatik. Aberatsa da guziz euskaldunon aotik aorakiko literatura, gure literatura idatzia apala izanarren.

Oiartzunen egin dana zergatik egin ez Euskalerriko beste erri askotan?

Biar edo etzi egin nai izatea alperrikakoa izango da. Beranduegi gertatuko baita.

Zarrak ba-dijoaz bein bat eta bein bestea, mundu ontako lanak eginda. Jaunaren deiari ez dago ezetz esaterik.

Eta zarrak ezkututzen zaizkigunean, kopla zarren berri eman lezaken gazte bat etzaigu geldituko. Gaur oraindik, zorionez, antolatu ditezke Oiartzun'go itzaldiaren antzekoak: bildu ditezke gaztetan ikasitako kopla zarrak kantatzeko gai diran gizon-emakumezkoak.

Kopla zarrak, geienik, don Manuel Lekuonak bere liburu zoragarri «Literatura Oral Euskerika» deritzanean dion bezela, eskabidezko koplak dira.

Kantari taldeak etxez-etxe, koplari bat aurrean dutela. Geienetan gau illunean.

Eguberriz, Urteberriz, Iñauteriz, San Juan ez edo Santa Agedaz betetzen dute egiteko au.

Au dio Manuel Lekuona jaunak:

«Gure egunetan, an da emen, buruz ikasitako kopla zarrak kantatzen badira ere, asiera artan bat-batetan asmatutako koplak izango ziran».

Bat nator ontantxe Lekuona jaunarekin.

Ez det zalantza izpirik egiten alaxe izango zala.

Gaur bertan ere, eskera irteten diran taldeen gorabera koplariaren gain dago.

Koplari on, trebe batekin dijoan taldeak askoz diru geiago bilduko du, ikasitako koplekin dijoan taldeak baiño.

Alperrik izango da eztarri indartsuko kopla-

ria ta zientoka kopla buruz dakizkiena. Ederki azalduko ditu koplen bidez egunaren aunditasuna, ta, nai bada, santa baten bizitza ta eriotza. Ez da orrekin naikoa.

Koplari on batek, baserri atari batera irixten danean, etxe artako bizilagun danak koplatu bear ditu, lenengo nagusi jaunarengandik asita. Bakoitzari berea eman bear dio, bertsoak al duenik ondoen uztartuaz.

Ori egiten duen koplariak biltzen du dirua suolto, ta bai familietan aogozo ederra utzi ere.

Bertsolariak eta koplariak ez dituzte molde berdiñak erabiltzen. Zaku bateko iriña esan ditteke, baiña ba-dira alako desberdintasun txiki batzuk.

Kopla zarrak, geienetan, bi ta iru puntukoak izaten dira, ta bertsorik txikienak berekin ditu, gutxieneko, lau puntu.

Kopla zarretan pentsamentua azkar eta bizkorrago dabillega uste du Lekuona jaunak; presakoagoko mugimentu bat nabaitzen dala kopla zarretan.

Onek esplikazio erreza du bertsolari baten-tzat.

Ondotxo neurri melarragoko ontzia da kopla-ontzia, ta al danik edaririk onena atera nai bertatik. Bizkor ibili bearra dauka koplariak puntuak alkarri egozten eta esan bear diranak al danik sakonen esaten.

Zortziko luzean asten dan bertsolariak patxara obean egiten du lana. Puntu bat bukatu baiña len bigarrena pentsatzen ari da, ta ba-daki artean beste bi puntu palta zaizkiola.

Koplariari denbora bukatzen zaio bereala; azkar egin bear asi ta buka.

Teknika desberdiñak dirala jakin dezazuten, auxe esango dizutet:

Oso bertsolari onak izan dira ate-ondoan koplari bezela luzitu ez dutenak.

Baita alderantziz ere. «Lumero uno» koplari bezela, ta bost puntuko lau bertso aotik aora kantatzeko abildaderik ez.

Eun metroko korrikalariak eta amar kilometrokoak bezela dira koplari ta bertsolariak.

Zeruko Argia, 1971-VIII-22 eta 29

GAUZAK ITXURATZEN

Oso berri on, atsegiñak jaso genituen orain dala denbora pixka bat Aita Zabala jesuitarengandik.

Gu izan giñan lenengoak bere garaian, «La Voz de España», egunkaritik, «Xenpelar-saria» sari lotsagarria zala esaten.

Izan ere, bi milla pezta zer dira gure eguntan sariketa baterako?

Zer pozekin ari bear dute gure bertsoari burupuskatzen, sortzen zaizkien bertso borobillak paperetara aldatu eziñik?

Gure irakurleek ondo dakitenez, bertsojartzaille onak baditugu. Ezagun izango zaizkie ondoren datozen izen batzuk, besteak beste dirala.

Manuel Matxain, Inozenzio Olea, Sebastian Salaberria, Segundo Kalonje, Jose Aierbe, Jesus Lete, Gillermo Albizu, «Ataño» «Izazpi» ta abar.

Gure eskuetara iritxi dan paperak au dio:

«1972-garren urteko «Xenpelar-saria» Euskaltzaindiaren ardurapean eta Donostiko Turismo Etxearen laguntzarekin antolatuta da, oiñarri (auekin:

Lenengoa. Iru sari izango dira bertso sail onenentzako.

Lenengoari, amabi milla pezta.

Bigarrenari, zortzi milla pezta.

Iruugarrenari, bost milla pezta.

Bigarrena. Bertso-saillak, azkeneko «Xenpelar-saria» ezkerotik argitaratuak izango dira: 1971-VI-10-garrena ezkerotik, alegia.

Berdin da bertso paperetan, egunerokotan, asterokoetan edo beste edozein agerkaritan argitaratuak izatea.

Irugarrena. Bertso saillak, erri-literaturaren maillakoak eta eskolakoak izango dira.

Laugarrena. Egilleak bost ale zuzenbide ontara bialduko ditu:

«Academia de la Lengua Vasca», Ribera, 6, Bilbao.

Bosgarrena. Epailleak Euskaltzaindiak aukeratuak izango dira.

Seigarrena. Bertso saillak, 1972-garren abuztuaren amabosgarrena arte bial ditezke.

Zazpigarrena. Sariak Donostiko Euskal Festetan banatuko dira, irail edo agorraren erdi aldera».

Bear dan eta dagokion mailla orain artu du «Xenpelar-sariak».

Oso ondo daude, amabi, zortzi ta bost milla peztako diru mordoxkak.

Gure bertsojartzailleak eztira diruagatik

ibiltzen, zaletasunak bultzata barrenen daramatena azaltzen baizik.

Diruak, ordea, beti du berekin alako poz-zirrara. Bear degulako; diru gabe ezer ematen ez tutelako, ez emen eta ez an.

Poesi landuak, goi-poesiak, eztu emen sarrikerik, erri-poesiak baizik.

Erri-literaturaren maillako ta eskolako bertsoak eskatzen dira.

Euskal kultura dagoen maillan dagoen arte-raiño, poesi errikoia poesi landua baiño probe-xugarriago izango ote dan gaude.

Oso gutxi baitira, zoritxarrez, goi-maillako poesiari bere zumua ateratzeko gai diran euskaldunak.

Munduko izkuntza guztietan gertatzen da berdintsu; poesia ezpaita edozeiñentzat egiña. Jakiñeko irakurleak ditu poeta batek.

Ta, indar betean dauden izkuntzetan ala gertatzen bada, nola ez euskal barrutian? Geu ez al gera etenik gabe esaten ari euskeraz «analfabeto» utsak gerala?

Ispillutzat bat artzezkerok, nor «Xenpelar» baiño egokiagorik?

Ezta izan «Xenpelar» bezin bertsolari ezagunik. Izenik eta sonarik iñork izan badu, Errenteri'ko seme argiak, ziñez.

Ark bere garaian paperetan jartzen zituen bertsoak euskal probintzi danetara zabaltzen ziran. Jendeak bai gogoz ikasi ta kantatu ere.

Giroa ere, jakiña, gaur ez bezelakoa zan ortarako. Artean euskera zan jaun da jabe gure erritan, eta gaur erderak artu digu gaiña.

Alde aundiarekin gaiñera!

Gure zorion beroak bidali nai genizkieke
«Arantzazu» illeroko onen bidez Euskaltzain-
diari ta Donostiko Turismo Etxeari.

Eman bearrezko pauso bat zan, eta eman
egin dezute. Bejondeizutela!

Ziur gaude aurten Bilbao'ko Ribera kalean
egundo baiño bertso pillá ugariagoa artuko da-
la.

Bi milla peztak ezer
eztute balio,
soldata jaso dute,
zer erremerio!
Baldin lanari gogoz
elduko bazaio,
bakoitzari berea
eman bear zaio.

Bitikan amabira
bada zerbait tarte,
asi bertso moldatzen
nola zar da gazte;
orain dirutik bada
pozteko ainbeste,
ta bertsojartzailleok
saiatu zaitezte.

Al dan gairik onena
billa zazutela,
ta gero biribildu
bear dan bezela.

Laguntza bear degu;
zer gera bestela?
Arantzazu'ko Amak
argi zaitzatela.

Zuen irudimenak
bear du egatu,
itzak ondo neurtuaz
lan on bat eratu.
Itxaso, erri, mendi,
oiekin kontatu,
Euskalerra onetan
bada zer kantatu!

La Voz de España, 1972-VI-18

Arantzazu, 1972-VII

ASMO TXALOGARRIA

Euskal abeslari (kantari) entzutetsu batzuk asmo txalogarri bat artu dute: garai bateko bertsolari zar aukeratu batzuen bertsoak kantatzeko asmoa.

Bertsolari baratzan, guk esan bear bagendu, mota (klase) guztietako barazkiak arkituko dituzute. Ba-daukazute nun eta zer aukeratu.

Ondo kantatutako bertso zarrak atsegin biziz entzungo ditu erriak. Urtez zerbait jantzirik dauden entzule askotxok buruz jakingo dituzte zuek kantatuko dituzutenak.

Zer nai dezute ederragorik?

* * *

Xabier Lete abeslariak bialdu digun karta batean, era ontan mintzatzen da:

«Julian Lekuona ta nik, garai bateko bertsolari aukeratu batzuen bertsoak kantatzeko asmoa aspalditik genuen. Ez, alegia, bertsolariei

beren tokia lendu naian, gaurko jendeari garai bateko bertso zarrak erakusteko ta abesteko asmoz baizik.

Denbora asko pasa degu emanaldi ori presatzen; bertso ta bertsolari asko aztertu ta begiratu ondoren, aukera bat egin bear izan degu.

Gure ustez bertsogintzan maixu izan ziran bertsolariak aukeratu ditugu. Batez ere, Xenpelar, Txirrita ta abar».

* * *

Lengo bertso zarrak kantatuarekin, Xabier, iñola ere eztago gaurko bertsolariei tokirik kentzerik.

Zuek aukeratuko dituzuten bertsolari zarren bertsoak paperetan jarritako bertsoak izango dira amarretatik bederatzi, ta ez aotik aora kantatuak.

«Auspoa» sortan nai dan aukera daukazute. An daude Xenpelar'enak, an daude Txirrita'renak. Gaurko bertsolariei tokia kentzekero, bertsolari berriak sortu bear dute: beurak baiño trebeago, azkarrago ta sakonago diran bertsolariak.

Au, zorigaitzez, eztegu erreza ikusten.

* * *

Zeuek ikusiko dezute zer egin.

Zure kartan aitatzen dituzun bi bertsolarien maixutasunik ukatu gabe, gure gustorako are ta goragotik daude Pello Mari Otaño ta Bilintx

donostiarra. Mailla batzuk altuago daude gure ikusmoldez.

Erdel izkuntzetako abeslari danek maitasun gaiak darabilzkite kantagai.

Bilintx donostiarrak moldatu zituenak ba al dute beste edozein izkuntzetakoan parean jartzeko lotsarik?

Merezi ainbatean estimatu ote degu iñoiz Bilintx'en egokitasuna?

Gu ezetzean gaude.

* * *

Joan dan ogeitamar urte ontan erriak asko ikasi du bertsoari bere balioa ematen: ona, erdi-purdikoa ta txarra bereizten.

Asko suprituak gera gu au dala-ta. Euskal bertsolaria ta euskal bertsoa lokaztegian ezagutu genituen, eta zelai garbira ateratzeko alegiñak egiten asi giñan.

Norberak jakiten du, entzule danak baiño len, kantatu duen bertsoa ona izan dan edo kaskartxoagoa. Bear bezela irteten etzaionean pena izaten du bertsolariak, eta eziñezkoa da beti nai bezelakoak irtetea.

Guk ikusten eta nabaitzen genduenau au zan: erri batera joan, balkoitik kantatzen asi, ta norbere gustorako bertsorik mardulen eta ederrena kantatu, ta entzuleen biotzetara iritxi ez.

Urrengo aldiian lau astakeri esan, aurreko bertsoaren amarretatik bat balio etzutenak, eta jende dana txaloka ta gozamenean.

* * *

Erria zegoen ezi bearra. Gaizki esaka ari etzana, astakeririk jaulkitzen etzuen, etzuten bertsolaritzat artzen garai batean.

Bertso batean iru pota egiñarren ere, ker-tenkeri bat bota ezker, dana egiña.

Gaur, zorionez, eztago olako konturik. Gaur parregarri geratuko litzake nunai molde zatar aiek berritzeko asmoz asitako bertsolaria.

Euskal bertsoak eta euskal bertsolariak ezti-
ra pailazo izateko jaioak.

Eztaukate lokatzetan eta simaur artean ibili bearrik. Askoz egiteko sakonagoa da beurena; askoz on geiago egin lezaieteke sorterriari ta izkuntzari.

Bide ortatik dijoaz gaurkoak, eta eztago beste biderik.

* * *

Onela jarraitzen du Lete jaunak:

«Bertso oiek aukeratzeko Juan Mari Lekuona laguntzaille izan degu. Orain gure jarduna prest daukagu, eta lenengo aldiz Donosti'n eman nai genuke martxoaren lenengoan eta iruan, «Teatro Principal» edo euskaldunen Antzoki Zarra dalakoan».

Maixu ona autatu dezutela aitortu bear. Juan Mari Lekuona jaunak ba-daki bertsoaren berri: jakingo du zein artu ta zein utzi.

Lete'ren beste zati bat:

«Gure ustez, jende xumearentzat atsegingarri izango diran bertso oiek, entzule zabalagorik ere eduki bear luteke: gaztedia bildu nai genduke. Azken bolara ontan, batez ere, oso arin eta otz ikusten baitegu gure bertso ta kanta zarrei buruz.»

* * *

Gaztediak otz eta arin jarrai nai badu, euskal sena galtzen ari dalako izango da, ta ez zuek aukeratutako bertsoek grazirik eta baliorik ez-tutelako.

Danak eztira izango otz geldituko diranak. Euskera menderatzen duten gazteak izan ezkerro beintzat, bati baiño geiagori egingo diete zirrara bertso oiek.

Euskal abesti berri asko ta askok oso denbora gutxiko bizia izan dute: bolaratxo bero bat eta... gero, akabo!

Otaño, Bilintx, Txirrita ta Xenpelar'en bertso aukeratu batzuk, euskerak bizirik duen artean iraungo dutenak izango dira, Strauss aita-semeen «vals» musika bezelaxe.

Aien musikarik ezta zartzen: gazte ta zarren belarri-gozagarri da beti.

La Hoja del Lunes de San Sebastián,
1974-II-25

BEIN DA BERRIRO

Bai, bein da berriro gaur ikusiko da bertsolaritza indarra nolakoa dan Euskalerrian.

Euskal olerkariak (poetak) oso jende gutxi-
rentzat itzegiten du, ta euskal bertsolariak eus-
kaldun guztientzat.

Au da onekin esan nai nukena: olerkarien
laneri beren zumoa ateratzeko jende ikasia ta
eskolatua bear dala.

Bertsolarien ezpainetatik datozkigun ber-
tsoeri ateratzeko ez berriz.

Lautatik iru bertsozale dira euskaldunetan.
Baserritarrak, batez ere. Ta bertsozale danak
ederki bereizten ditu bertso ona, bertso txarra
ta erdipurdikoa.

«Lizardi» ta «Orixe» batek idatzirik utzi ziz-
kiguten poema danak aixa ulertzeko (kompre-
ditzeko) gai izatea litzake ederrena.

Ori urruti dago oraindik, zoritxarrez, eta
bertsolariz baliatu bearko degu gure erri xea
pozteko ta atsegintzeko.

Gaur bertan berebiziko pilloa da Astoria'n kantatzekoa.

Euskeraren batasuna?

Aspalditxotik egiña daukate euskal bersolariek.

Ba-dira bizkaitarrak, ba-dira naparrak, ba-dira gipuzkoarrak, ba-dira lapurditar eta baxanapartarrak.

Alkarri ez diote itz erdirik galduko. Dana jasoko dute, danez jabetuko dira.

Bertsolariekin batera entzuleek ere, gero ta eragozpen txikiagoak aurkitzen dituzte bertsolarien itzegiteko moduan.

Zenbat eta jaialdi geiago, zenbat eta geiago entzun, orduan da errezago iruditzen dira euskalki guztiak.

Sarrera danak aidean salduak izan bear dute. Astoria antzokia oso txiki geldituko da, pentsatzekoa zan bezela.

Asmo txalogarria izan zuan benetan Donosti'ko Turismo Etxeak.

Urtean beingo billera au oso sartua dago erriaren erraietan.

Ba-dira urte guztian beste iñora irteten ez diran senar-emazteak, baiña Donosti'koa ezerगतik uzten ez dutenak.

Gaur Donosti'n omenduko dan bertsolaria ez da ezaguna Gipuzkoa'n.

Bizkaitarra degu bera, ta Bizkai aldetik kantatzen zuan sano zan artean.

Au da ordea gutxienekoa.

Danok dakigu bertsolaria dala, ta danok dakigu zer gertatu zitzaion. Laneko ezbear baten

bidez bizitza osorako elbarri degu «Iturri».

Laguntzaren premirik inork badu, gizon onetxek noski. Ondo jabetu dira ontaz bertsolariak, eta ondo jabetu da erria.

Argatik alako sarrera eskea: argatik onelako sua.

Guk ez daukagu «Iturri'ren» gaitza sendatzerik, baiña poztasun neurrigabe bat ematea gure esku dago. Ta... emango diogu!

Bizirik dan artean gogoan izango du gaurko eguna: gogan izango du Donosti; gogoan izango ditu omeraldira inguratutakoak.

Goazen bada alaiki Donosti alderuntz. Goazen «Iturri» zorientzera, ta, bide batez, euskal kutsu berdingabeko egun zabal bat igarotzera.

Euskerak bere eguna izango du gaurkoa. Bertsolari artean inongo beste izkuntzek ez du izaten sarrerik.

Euskera ta euskal bersolaria bat dirala esan dezakegu.

La Voz de España, 1975-II-6

GAUZAK ESAN

Bertsolari on baten doaia gauzak argi ta garbi esatea da, itzak eta puntuak ondo neurtuaz.

Ez dira berdiñak olerkari (poeta) baten eta bertsolari baten izkerak.

Olerkariak bere mundu berezi bat du eta gaiñik-gain dabil ederraren billa. Itz apaiña-goak, dotoreagoak, baiña geienetan, irakurleak jabetu bear du zer esan nai luken edo bere apainduriak zertara datozen.

Bertsolaria zuzen-zuzenean dijoa berea esatera, apainketa ta dotoreziari geiegi begiratu gabe.

Oso talde txikia da olerkari aundien lanak bear bezela ausnartzeko kapaz dana. Euskaldunen artean, batez ere.

Gaztelera (kastellanoz) berdin gertatzen da.

Ogeitamar milloi espaiñoletatik zenbat milla dira Juan Ramón Jiménez, Federico García

Lorca, Neruda, Alberti ta beste ainbat olerkari-
ren emaitzak bear bezela gozatzeko gai?

Zenbatek aterako die beren zumoa?

Gaztelera dute beren izkuntza bakarra. Ori
entzun dute etxean, ori eskolan, ori lantokian.
Ori darabilkite bizitza osoan.

Erdaldunetan ori gertatzen bada, nola arritu
gure kaso bereziarekin?

Euskaldun bertsolariak, ordea, danentzat
itzegiten du. Euskeraz dakianik nekez aurki di-
teke ondo jarritako bertsoa konprenituko ez
duanik. «Zuriari zuria ta beltzari beltza», esan-
go dio.

Zuzenean joango da bertsolaria zezenari
adarretik eltzera.

Euskal olerkariaren lanak biotz aukeratu
batzuk kilimatuko ditu.

Euskal bertsolariaren lana danentzakoia
izango da.

Aotik aorako bertsolariez aparte, bertsojar-
tzaille on asko degu gaurko egunean, zorionez.
Eta oso lan bikaiña ari dira egiten, asko kontu-
ratu gabe.

Oien lanak jende guztiak irakurtzen ditu, ta
irakurri alean ulertu (konprenitu).

Irakurleak dira euskerak bear dituanak.
Eta, oiek izango badira, gogozko janaria eman
bear.

Bertsolariek asmatzen dute ori egiten. Arga-
tik ditu erriak ain gogozko.

Oraintsu, «Zeruko Argia» asterokoan, Ma-
nuel Matxain, Aiete'ko bertsojartzaille bizko-
rrak, amar bertso argitaratu ditu.

Aspalditxo artu zuen izena ta fama Matxain'ek. Oiek artuko badira erakutsi egin bear lenengo.

Eta Matxain'en bertsoak argi diote baliozko gizon batek moldatuak dirala.

Willy Brandy aleman politiko ezagunak beingo batez esan zuanaz oroitzen naiz:

«Pertsona bakarra naikoa da, naspillak, katramillak eta gerrak sortzeko; baiña, pakeari eutsiko bazaio, danok egin bear ditugu alegiñak».

Pobre ta aberatsen arteko goraberak agertzen dizkigu Matxain'ek.

Onela dio lenen bertsoak:

Adan eta Eba'k artu ziguten

lenengo bide okerra,

geroztik emen ba-dabilkigu,

jaunak, katramil ederra.

Tiroz berdin guk iltzen ditugu

gizona eta eperra,

pake urtean gaudela baiña

bazter guztietan gerra.

Zabalduradioak, zabaldurtelebisioa, zabaldurperiodikoak... Arkituko dezu berri pozgarririk.

Ez dago oker Matxain, eperra il edo gizona il berdintsu jarri ote dan dionean.

Sermolari kutsua ematen diote batzuk zerbait sakondu nai duan bertsolariari.

Larri ibili Matxain'i ere ala ematea, bigarren bertso au irakurtzen duten norbaitzuk:

Mundu triste au nola dagoan
guziok gera testigu,
alare Jaunak ez du bialtzen
merezi ainbat kastigu.
Danon onean lege batzuek
emen ipiñi dizkigu,
aiek betetzen ez diralako
gerrak etortzen zaizkigu

Era ontan mintzatzea atzerakoi izatea da
gaurko egunean.

Jauna ta pekatua aitaturko zenitun ba?
Oietxeri kaso egiteko dago gaurko jendea!
Ondo aztuta gabiltza, Matxain, ziurki daki-
gunez.

Baiña, arro geranok apaltzeko ez gaude toki
txarrean. Ez da etorkizun argiegia ikusten.

Baliteke orain aitzatzerik nai ez degun Jau-
naren bearrean izatea.

Ala gera, izan ere, aitortu nai badegu ta
ezpadegu, jaiotzen geranetik iltzen geran arte-
raiñokoan.

Aundikeriaren gaitza salatzen digu urrengo
bertsoan.

Uka ezin diteken egia da: egunero ikusten
ari gerana.

Eta, gutxi edo geiago, danok gera pekatari:
danok gaude kutsutuak.

Aundikeriak jota gaude gaur
tontoak eta listoak,
ezerez batzuk geranok eta
gerran dabiltzan kintoak.

Kristo'n ordezeko diran apaizak,
baita ere obispoak,
eta munduan agintzen dauden
errege ta ministroak.

Goraxeago diodan bezela, bertsolaria zuzenean joaten da zezenaren adarretara. Argi ta garbi esaten ditu gauzak, urrutitik kiñuka ibili gabe.

Danok nai degu al dan azkarren
bete geronen kartera,
naiz diru oiek gure anaien
kopetetikan atera.
Aurrerapen da komodidade
denak ekarri etxera,
iñork ez degu emen bizi nai
Jesus Aurraren antzera.

Emengo geiegikeriak min ematen dio bertsolariari, erri batzuek goseak iltzen ari diran bitartean. Irakurri onoko au:

Erri batzuek goseak iltzen
izugarrizko pobrezan,
ta kristau asko joiaz beteta
amabietako mezan.
Sobre daukanak ezpadu ematen
ez daukan arrek jan dezan,
kristaua danik, iñon aurrean,
Jainkoagatik ez esan.

Ondoren datorrenak ere ba-du bere mamia:

Pekatua da jai egunean
mezetara ez joatea,

zer esanik ez, Jaunaren aurka
itz larriak esatea.
Pekatua da lizunkerian
lokaztuta egotea,
ta aundiena sobre daukanak
pixka bat ez ematea.

Ordubeteko sermoi luze batean esan dite-
ken dana bertso bakar batzutan agertua dago.
Itz neurtuak diralarik eta puntutan ondo uzta-
tuak, barrurago sartzen dira ta obeto gogora-
tzen.

Au da euskal bertsoaren alderdirik onena.
Erriak ikasi ta kantatu egiten ditu.

Aranzazu, 1975, IV

BERTSOLARITZA

Azaroaren amazpigarren eguna zan.

Jakiñean egongo zeratenez, 70 urtetik gorako bertsolari zarrak omendu ziran Donosti'ko Anoeta pelotalekuan.

Amasei ziran biltzekoak. Amairu agertu ziran, beste irurak gaixo ziralarik.

Eguneroko ta asterokoen bidez badakizute zein jaialdi bikain eta atsegiña izan zan Donosti'koa.

Guk, geure aldetik, sei bertso moldatu genituen goiz artarako.

Emen dijoazkizute «Arantzazu» maite onen orrialdetan.

Gaurko eguna bai dezutela
pozkidaz gogoratzeko,
ager zaitezte alai ta pozik
umetxo batzun antzeko.

Jendeak etzauzkate aztuta
bazterrean lagatzeko,
beso zabalik dago Donosti
zuek goxoki artzeko.

Bat trebeago bestea baiño,
danok ez izan berdiñak,
bere tokia eskatzen zuan
zuen kanturako griñak.
Sagardotegi ta tabernetan
ain ziñaten atsegiñak!
Triste zeudenak alaitzen saio
ederra pranko egiñak.

Izan zenduten argi diztira,
izan zenduten zentzuna,
neroni ere zarren aotik
bertso ederrik entzuna.
Erein zenduten azi bikaiñak
eman du, bai, erantzuna,
zueri esker da gazte askok
gaur duan zaletasuna.

Zuen ezpaiñak etzuten iñoiz
geurea beste izkerik,
danak orrela joka balira
etzan galduko euskerik.
Sagardotegi eta taberna,
orduan etzan besterik,

zuen denboran bertsolariak
etzuan gaurko eskerik.

Etzenieten kasorik egin
zenbaitxo buru-argali,
bat kantatuta bestea bizkor
ezpañetatik zintzili.
Erri arnasa ziñaten eta
txantxetan ezin ibili,
piztu zenduten kandela ura
oraindik ez da itzali.

Maitasun izan baitiozute
neurri juxtuko itzari,
ainbat mesede ta on egiñaz
gure bertsolaritzari.
Zartzaro zorionsua bedi
zuen lan guztien sari,
besarkadarik biozkorrena
zuetako bakoitzari.

Garai batean bertsolaririk etzan aintzat artu
ere egiten.

Okerrago dana, jende ikasia, karrerako jen-
dea, bertsolarien kontra agertzen zan. Gogoan
ditugu Karmelo Etxegarai batek idatzitakoak.

Gaur bizi balira ta antolatzen diran jaialdiak
ikusi, ausartuko ote lirake len bezela itzegiten
eta idazten?

Bertsolaritzari gutxi iritzirik, orduko jakintsuek poesiari ekin zioten.

Geroztik urte asko igaro dira ta euri asko egin du gure lurrean.

Eta oraindik ere Bilintx, Xenpelar, Otaño, Txirrita ta abarren bertsoak gogoan ditu erriak. Kantatu egiten ditu.

Zenbatek dituzte gogoan Etxegarai'ren poemak?

Egia da garai bateko bertsolariek oso gai arloteak erabiltzen zituztela; alkarrri gaizki itzegitea besterik etzutela egiten.

Zeiñek luzatzen zien eskurik jokeraz alda zitezzen?

Ètzan bertsolarien errua, gaiñeko jendearena baizik. Uraxe eskatzen baizitzaien bertsolariei.

Orduko gizon ikasiek, jakintsuek, lagundu balie, gaurko komenentziak jarri balitzaizkie gai egoki batzuk izendatuz, aiek ere gizonki erantzungo zuten.

Iseka ta desprezioa besterik etzuten izan goiko jendearengandik.

Beren doai ta talenturik ezin azaldu kondizio aietan.

Orain konturatzen da jendea bertsolari ona izatea zein gaiztoa dan, eta ortarako zein buru azkarra bear dan.

Gizon azkarrak izango ziran (au ez dago ukatzerik), bertsolarietaz gaizki esaka aritu ziran garai bateko jakintsuak.

Eskolatzeko aiek bezelako era, erreztasuna ta modua izan bazuten, askoz azkarragoak izan-

go ziran aiek aintzat artzen etzituzten bertsolari arloteak.

Bertsolaria bere tokian dago gaurko egunez. Ondo ikusia ta guztiz estimatua da euskera bizi-rik dago leku guztietan.

D. Manuel Lekuona apaiz jaun agurgarria izan zan lenengo eskua luzatu zuana ta irrintzi ozena egin zuana; bertsolariaren egitazko bali-olia ezagutu ta aitortu zuana.

Ez degu bear ainbatean iñoiz eskertuko oiartzuar seme argi au.

Liburu eder, bikain, jakingarri bat eman zuan argitara «La literatura oral vasca» izenbu-ru edo «tituloarekin».

Orduan asi zan jende ikasia begiak zabal-tzen; ordutik asi zan bertsolarienganako begira-pena.

Geroztik jende askok jarraitzen du, zorio-nez, Lekuona'ren bidetik. Jorje Oteiza oriotar irudigille (eskultore) azkarra ere bertsolarien esker ona merezi duan gizona da.

Berebiziko goralpenak egiten ditu «Quous-que tandem» deritzan bere liburu pamatuan. Oteiza'k zeruetaraiño jasotzen du euskaldun bertsolaria, gure erriaren balorerik onenetako bat juzkatzen dualarik.

1935 eta 1936'garren urtean Donosti'n ospa-tu ziran bertsolari txapelketek ere egundoko ona egin zuten.

Ordutik asi ziran bertsolariantzat deiak ba-tetik eta bestetik. Geroztik ala jarraitzen du. Gaur ez dago euskal jaialdi bat bertsolari gabe.

Ezertan aurrerakorik egin badegu, ontantxe egin degu.

Dagokion mailla eman diogu euskaldun bertsolariari.

Orain berrogeitamar urte etzan onelakorik.

Aranzazu, 1975, XII.

BERTSOLARIAREN NEKEA ETA ERAMAN BEARRA

Askotxok alakorik ez uste izan arren, neke aundia da bertsolariaren nekea.

Entzule jendeak egundoko errespetoa du bertsolari jendearentzat. Entzule orren arduretara dago bertsolaria. Atsegiñez bete nai luke, ta beldur da bere nairik ez ote duan lortuko.

Gaurko bertsogintza ez da orain berrogeitamur urte bezelakoa.

Orduan, sagardotegian edo taberna bazterrean kantari ari zan bertsolariak etzuan erantzukizunik. Eskatu ere etzitzaion egiten, zertan eskaturik etzegonda. Askotan, lau kirtenkeri esanik egiña zegoen jendearekikoa.

Gaur, berriz, teatrorik ederren eta apaiñetan ikusiko dezu bertsolaria. Plazetan zer esanik ez. Aldaretik kantatzen ere ez gutxitan. Bertsolaria buru puskatzen dago denbora gutxian: etengabeko nekea du berekin.

Oso egoki esan digu au berriki Inozenzio Olea'k, Xalbador'i buruz:

Zure erria serbitu dezu
ain bizkor eta umil,
sarriegitan ikusi gera
zu nekean da gu trankil.
Nere burutik kezka garratz bat
kendu eziñean nabil:
geitxo eskatu ta azkenean
geuk ez ote zaitugu il?

«Sarriegietan ikusi gera zu nekean da gu trankil».

Au da izan ere egia. Entzulea trankil dagon garaian, astuna da benetan bertsolariaren buruaustea.

Nasketa bizian du burua: lanean ari da une guztietan. Atsedetik ez du ezagutzen, jendea aurrekaldean daukanean.

Xalbador'en nekea askoz aundiagoa zan emengo bertsolariena baiño.

Onera zetorren bakoitzean, emen kantatzen zuan bakoitzean, gipuzkoar euskalkiari eldu bear izaten zion, jendeak obeto uler zezaion.

Askoz errezago kantatuko zukean bere era-
ra, baiña emengo entzuleentzat ari zan lanean,
eta emengo itzak sartu bear, al zuanik geien.

Ni ere ala alegintzen nintzan mugaz aruztik kantatzen nuanean: ango itzak erabiltzen, alegia.

Au dobleko nekea da bertsolari batentzat. Idazteko ba'litz ez ainbeste, nai dan denbora artzen da-ta.

Bat-bateko bertsoekin ez dago ordea olakorik; ez dago ezertarako astirik.

Goazen Zepai zanaren aitamenak egitera.

Getaria'ko festak ziran: San Antonak. Ogei urte ta geiago igaro dira au gertatu zanetik. Bukatu genduan arratsaldeko bertso saioa Udaletxeko (Aiuntamentuko) balkoitik.

Zepai zana zan urte artan nere bertsolari lagunetako bat.

Musika jotzen asi ziran. Gazteek dantzari ekin zioten.

Guk, beti bezela, Loidi'ren bodegoira jo genduan. Ura izaten zan bertsolari danen ostatu ta babesleku. Izketaldi goxoan ari giñan lagun mordoxka bat.

Tabernan sarri gertatu oi danez, bazegon bat bear baiño zerbait geixeago edana. Ekin zion bertsoan, eta... etzala ixilduko! Etzuan, astoak arrantzaz aiña modu.

Ez puntu ta ez koma, segi ta segi, akerraren adarrak baiño okerrago. Olamoduzkoak tentazen mutilla zan Zepai zana. Ala esan zidan:

-Zu, Inazio, mesedez, zaude ixil-ixilik. Nik tentatuko det au dotore.

Esan zizkion ba bereak eta bi Zepai'k. Somatu zituan guztiak.

Alper-alperrik ordea. Bestea etzan ixiltzen: etzegon bildur aundirik.

Alako batean gaiñez egin zuan Zepai'ren pazientziak. Onela mintzatu zan:

-Aizu, adiskidea: galdera bat egin nai nizuke ba.

-Zer da, zer da?...

-Zuk aita al zenduan eroa, ala zerori zera? Antxe bukatu ziran bertsoak.

Bertsolariak ez du gutxi eraman bear izaten, erriz-erri dabillenean.

Toki bakoitzean izaten baita amorragarri bat edo beste, ta danak bersolarietara biltzen dira.

Urrengo batean, astirik artzen badet, Xalbador zanari gertatutako zerbait adieraziko dizutet.

Uztapide ta biok giñan testigu. Ark gogoan du, ta bai nik ere.

–Konturatu al aiz gauza batez? –galdetu izan zidan maiz Uztapide'k–. Toki berri batera goazenean, gu agurtzera ta guri konfiantza ematera lenengo agertzen diranak izaten dituk erriko pertsonarik eskasenak. Erriko jende zuzen eta serioa agertzen danean, azkar ezkututzen dituk alakoak.

Eta au alaxe izaki, milla bider ikusi degunez.

Goiz-Argia, 1976-XII-11

ONDO ALA GAIZKI ITZEGIN

Errespetuz eta ondo itzegitea, ala gaizki itzegitea da errezago bertsolari artean?

Bertsolariak gatzik eta piperrik izango ba'du, gaizki itzegin bear duala, uste izaten du zenbaitek.

Gordinkeri ta nabarmenkeriak jaulki bear dituala, alegia.

Ori litzake errezena, guk esan bear bagendu.

Gaizkirakoa aixa etortzen zaio bati burura, esateko ausardirik izan ezkeru.

Lotsa galdu bear du batek ortarako; gizata-sunari alde bat utzi bear dio.

Asko estimatzen gaituan lagun batek au esan zigun igande gau batez Zarautz'en:

-Iri ez diat sekula txarrerako bertsorik entzun, eta gaizki esaten ez dakian bertsolaria etzaidak iruditzen bertsolari osoa danik. Bururatzen zaizkikan danak nere kontra esatea

nai nitek. Nik ordainduko dizkiat emengo kastu guztiak.

Ba-giñan dozenerdi bat lagun maian.

Au esan genion asi aurretik:

–Baimen osoa ematen didak eta ni baliatzera niak. Baiña ondoren damu izaterik ez nitek naiko.

–Etzak orren ardurarik izan: kanta lasai.

Jaionkoak bakarrik daki zer esan genizkion.

Ez genduan asko pentsatzen, baiña denboraz aldatu zan kolorez.

Aitormen au egin zigun:

–Ez nian sinistuko, motel, orrelakoa intzarnik. Neuk eman diat bidea, neuk akullatu aut, eta ondo merezia nian dana. Orain konturatzen nauk gaizki esaka bertsoan egitea, samurragoa dala, ondo itzegiñez egitea baiño.

Alde ikaragarrian gaiñera.

Besterik da, ordea, bertsolari jator baten egitekoa.

Danek bide ortatik jo izan ba'lute, oraindik ere lokatzetatik irten eziñik egongo zan euskaldun bertsolaria.

Urte askotako lana izan da oitura txar au baztertzea.

Gure aurreko bertsolariak nabarmenkerira jo bear izaten zuten.

Bertsolarien pekatua baiño geiago zan entzuleen pekatua.

Artaraxe beartzen zituzten: uraxe egitea eskatzen zitzaien.

Eskolatuek etzuten ezer nai bertsolariekin: etzituzten gogozko.

Erri xeak, berriz, artan gozaten zuan. Aiek xaxatzen zituan, al zituzten aundienak esan zitzaten.

Gaur, zorionez, beste mailla bat artu du euskaldun bertsolariak.

Entzuleak ere ez dira ordukoak. Ba-dakite ain beetik ibiltzeko egiña ez dala bertsolaria.

Goiz-Argi, 1977-II-19

BERTSO JAIALDIAK OBETZEKO

Bertsolari jaialdia beerakoa dutela entzuten eta irakurtzen degu bein baiño sarriagotan. Ez gera batere arritzen, egia esan.

Askotan ez da au bertsolarien errua ta pekatua.

Egun danak ez dira berdiñak izaten, baiña bertsolariak berari dagokion sailla bear du luzituko ba'du, pelotariak gustoko pelotalekua bear duan bezelaxe.

Gaur egunean izendatzen zaizkien gai asko oso kaxkarrak eta narratsak iruditzen zaizkigu; errespeto pixka bateko jendearen artean erabili ezin ditezkeanak.

Gai eskas zentzugabe bat jartzea naikoa da bertsolariarik onena ondatzeko; kantatzeko gogo danak kentzeko.

* * *

Bestalde, entzutera dijoan jendea ere ala moduzkoa da sarritan.

Politikan sartu ezkerro, onengatik edo arengatik egundokoak esan ezkerro, txalorik zarata-tsuenak irabaziak daude.

Berdin da bost xentimo balio ez duan bertsoa bada ere.

Beste batek mundukorik onena kanta dezala, ta iñor iraintzen ezpadu, politika kutsurik ezpadu, ixiltasun nabarmena.

Arentzat ez dago txalorik eta esker onik.

Lokatza txalotu, ta urrerik estimatu ez.

Eta, jakiña, egitazko bertsozaleek, bertsoaren teknika errotik ezagutzen dutenak, jaialdi auetatik urrutiratzen ari dira; ez dituzte aintzat artzen ere.

* * *

Politika bearrezkoa da, errigintza dalarik.

Guk ere ba-degu geurea, ta txalogarri derizkiogu gaiñontzekoek izatea.

Bertsolari jaialdi bat, ordea, ez da mitin bat bezela. Bertsozale purrukatu diranak bertsoak entzutera joaten dira, ta ez mitiña entzutera.

Politikari bere sailtxoa emanarren, andik kanpo egiteko aundiak ditu bertsolariak. Sail zabalagoak, alegia, ontaz eta artaz itzegiñaz.

Gero ta ohea izaten alegindu bear du bertsolariak; atzo baiño gaur bertso beteagoak boro-biltzen.

Munduko gauzarik errezena augatik edo uragatik gaizki esatea da. Bertsoa ere askoz errezago etortzen da burura.

Bertsoa zer dan arrastorik ez dutenen txa-

loen zai dagoan bertsolariarekin ez dago kontatzerik. Zerbait egin bearra dago bertsolaritza bere onera ekartzeko.

Benetako bertsozale urrutiratu oiek inguratu bear dira berriro. Ortarako, orde, iñoiz utzi bear etzan bide zuzenari ekin bear dio jendeak.

Antolatzaile, gaijartzaile, bertsolari ta abar, danak daude aldakuntzak egin bearrean. Oraingo giroaren emaitza dala? Gauzak beren senara laister etorriko dirala?

Ala izan dedilla.

* * *

Goazen aurreraxeago.

Bertsolari asko bildu ezkerreko jaialdi ohea irten bear duala uste izaten du jende askotxok. Batekoz bestera da au.

Egitazko bertsozale zintzoeri atsegina emateko, bi bertsolari treberen saioa bezelakorik ez da.

Jaialdirik ederrena osatzeko, seitik gora ez litzake bear egundo.

Onenak aukeratu, gai itxurazkoak jarri, edo beren kasa utzi.

Bertsolari onak ez du gai-jartzaillearen bearririk amarretatik zortzitan.

Alkar ondo artzen duan bikote batek badaki nun, zer eta nola kantatu; badaki entzule jendea gustora nola utzi.

Ogeitaka urtean ibilli giñan Uztapide ta biok erriz-erri, iñungo gaijartzallerik gabe.

Etziran gaurko denborak; etzegoan gaurko

askatasun edo libertaderik. Amaika aldiz egin degu, burura gauza bat etorri ta bestea esan.

Kezkati ta beldurrez beti, zertan utsegingo. Bearko, orduan!

Gaur dagoan lasaitasunarekin, bertsolariari berari bururatzen zaizkio milla gai, bestek jarritakoaren zai egon gabe.

Erri xearen emaitza da bertsolaritza, ta zenbaitek, karrerako gizon bati baiño geiago eskatzen dio.

Eraman lezakean zama (karga) baiño aundiagorik ez da jarri bear iñoren bizkarrean. Ala egin ezkerro, derrigor lur jo bearra baitauka.

Bertsolarien gaiemale ta zuzendariek bertsolari izan bear dute, edo opizioa oso sustraitik ezagutzen dutenak, ezer onik egin nai ba'da.

Beste gaiñontzean jai dago emen.

Goiz-Argia, 1977-XI-5.

POTOAK

Euskaldun kanta zarrak ixpillutzat artzeko modukoak dirala irakurri ta entzun izan det maiz.

Ba-dira ederrak, dudarik gabe, baiña bai bertso bezela akats nabarmenak dituztenak ere.

Oso ezagunak, oso errikoiak, oso pozik entzuten diranak.

Baiña, nere iritzirako, ezer gutxi balio dutenak.

Geienok ezagutzen dezuten bat dakart onera:

Ardoa edanda moskortzen *naiz*,
pipia artuta txoratzen *naiz*,
kortejatzia lotsatzen *naiz*,
nola demontre biziko *naiz*

Lau poto garbi daude emen egizko bertsolari batentzat.

Bertsolari teknikak ez du ontzat artzen, eta ez lezake artu olakorik.

Munduko gauzarik xamurrena izango litza-ke bertsoak egitea tartean eragozpen geiago ez-palego.

Lau puntu berdiñak, lau poto aundi dira be-ti. Ala ziran len, ala dira orain, ala izango dira gero.

Beste bat oso ezaguna:

Baratzako pikuak iru txorten *ditu*,
neska mutilzaleak anak arin *ditu*.

Irudimen politekoa, ariña, jostalaria, nai de-zutena.

Baiña emen ere bi poto daude bi puntutan.

Bertso moldaketan ez legoke burua geiegi nekatu bearrik au guztia zillegi izatera, libre izatera.

NUMERALAK DIRALA TA...

Bilintx'en bertso entzutetsu baten lau bu-kaerak:

Gazte bat,
beste bat
aste bat
triste bat.

Potorik ba al dago emen?

Ez nere ustez.

Bertsoa ezpaitu azken silabak bakarrik osa-tzen. Aurreragotik, asita, Bilintx'ek «gazte»,

«beste», «aste» ta «triste» itzekin osatua zeukan bertsoa. Gero daneri bat numeralara erantsi zien. Belarrietarako oso goxo egiten dan bertsoa da Bilintx'en au.

Alare, bertsolari batek ez du artu bear numeralara geiegi erabiltzeko griñarik. Al danik gutxiena. Baterez obe, agian.

Pedro Mari Otaño'k ba-du bertso jator bat bukaera berdintsuekin.

Baiña aren bukaerak ola dira:

Zenbat
ainbat
anbat
bat

Zizurkildarrak nai ta ere etzukean jarriko lau aldiz *bat* itza.

Neri gogozko zait Bilintx'ek moldatu zuan gisara.

Alare, ez naiz erabili aldekoa. Neu ez nintzake ortara jarriko. Galbai estua da bertsolariak erabiltzen duten galbaia.

Euskal bertsoak ezer meriturik ba'du, orregatixe da.

Lastoa batera ta garia bestera. Errezkerira eman ezkeru, arau ta erreglak ankapean artzezkeru, bertsolaritzaren azkena urrean litzake.

Bertsolariaren buruak egundo ez du atsedetik izaten; beti lanean ari dana da. Alaxe bear ere, ezer onik egingo bada.

Azken urte auetan asko argitu da jendea diotanari buruz. Ikasi egin du jendeak. Gaur oso gaitz da bertsozale jator bati katua erbitzat sartzea.

El Diario Vasco, 1979-I-30

ON BEARREZ OKERTU

Ainbat aldiz aitatzen degun Juan Inazio Iztueta zaldibitarrak, bere gisara ari zanean ondo idazten zuan euskeraz.

Gero, erabat josi zitzaion Larramendi'ren iztegiari.

Une artatixe galdu zuan bere nortasuna, beste baten morroi izateko.

Lotsa ematen zion errian itsatsirik zeuden erdel kutsuko itzeri sarrera emateak. Au dala-ta, geiegizko lotura dala-ta, Iztueta'ren zati batzuk oso astun eta neketsu egiten zaizkigu.

Aietan ez dago batere naturaltasunik. Berrezko doaiari jarraiturik argi-argi agertuko zituzkean pasarteak, guztiz illun eta lainõtsu ikusten ditugu.

Beste maixu baten arrastotik ibili nai, ta bere maixutasuna galdu.

Jovellanos'ek erderaz idatzitako puska askotxotatik euskerara egin zituan itzulpenak lastimagarriak dira. Irentsi ezin ditezkeanak. As-

pergarri egiten dira benetan, Larramendi'ren gonetatik dabillekako.

Lengo bertso zar eder asko ere erabat ondaturik utzi zituzten geiegizko garbizalekerian zebiltzanak.

Aiek jarritakoa kendu, borratu, ta beren arrobiko zerbait sartu.

Ez anka ta ez buru utzi zituzten bertso jator asko.

Baratza jorratzeko asmoz asi, ta kalte galantak egin. Porruak atxurrez ebaki, ta belar gaiztoak zutik utzi.

GOGOAN DET

1938'garren urtea zan.

Bertso edo olerki sariketa bat antolatu zan Baiona'n.

Eguna izendatu zuten, epea jarria zegon.

«Sariketa ontan esku artu nai dutenek, olako egunetarako bidali bear dituzte beren lanak».

Zuzenbidea an zegon nora bidali.

Gure gerrako gai bat bear zan nai ta ez.

Nik lau itxasontzi kaxkarrek, danok gogoan ditugun lau «bouk», ontzirik aundi ta indartsuenen aurka egin zuten burrukaldia artu nuan gaitzat.

Astia ere izaten nuan orduan gaur baiño geiago, ta moldatu nuan nere lantxoa, al nuan bezela.

Euskaltzale sutsu bat, apaiza bide batez, maixu ustean neukana zan.

Denbora ba-zegon artean, eta Baiona'n, antxe bizi baizan apaiza, eskuetara eman nizkion nere bertsoak, ezer akatsik aurkitzen bazuan zuzentzeko erregutuaz.

Andik egun gutxira itzuli zidan nere lantxoia.

Lautatik iru aldatu zuala uste det. Bazan antxe zuzenketa pranko.

Zuzenketa zala usteko zuan berak, on bearez, baiña okerketa negargarri bat izan.

Nere bertsoak bertsoen itxurik gabe utzi zitan, ez puntu ta ez koma.

Nortasuna da gizonak azkena galdu bear duana, ta nik ez nion kasorik egin apaiz jaunari, ni baiña askoz jakintsuago izan arren.

Bertso gaietan zearo ezjakiña zala konturatu bainintzan.

Paper zuri berri batzuk artu, ta neuk eginda neuzkan bezelaxe bidali nituan bertsoak sariketara, apaizaren oar bakar bat aintzat artu gabe.

Ala bearko zan nunbait, eta neuri eman zidaten lenen saria.

Epai-amia (Juradua) osatzen zutenetako jaun bat gure Oxire aundia zan.

Sariketa ta txapelketa askotan artu det esku aotik aorako bertso jardunetan.

Baiña, idatzitako bertsorik, orduantxe izan ezik, ez det gogoan beste iñongo sariketetara bidali dedanik.

Nik daukantan baiña asti geiago nai litzake ortarako.

Zenbat aldiz tabernan edo sagardotegian:

«Onoko bertso au Txirrita'k, Gaztelu'k edo Udarregi'k kantatutakoa da». Ta... zapla! botatzen dizute.

Sarritan erantzun izan diet auxe:

«Asmo onez ari zera ta eskertzekoa da, baiña zuk kantatu dezun bezela ezin kanta zezateken Txirrita'k, Gaztelu'k eta Udarregi'k».

Ezta nai ta ere.

Itxurik gabeko puntuak entzuten baitira sarrri, ta nik ziur dakit aiek etzerala ain langille narratsak.

Lepo bakarra degu, baiña bera jarri diteke aiek etzutela alako okerrik egin.

Aldakuntzak egiten asten dira asko, Baiona'n bizi zan apaiza bezela, ta mesedegarri diralakoan, kaltegarri izan.

Balio badute ta ezpadute, aien bertsoak aiek kantatu bezela agertu bear dira, ta ez gaiñeko jendearen eraskiñekin.

Idatzirik daudenak ere dauden artan erresetatu bear dira, ta ez batek derizkion bezela itxuraldatu.

El Diario Vasco, 1979-I-31 eta 1979-II-1

LIBURURIK EDERRENA

Bertsolaritza gai artuta idatzi dan libururik ederren eta jakingarriena, nere iritziz, D. Manuel Lekuonaren «Literatura Oral Vasca» deritzana da.

Maixu aundi baten lana da bera: bertsolaria oso-osoan ezagutzen duan batena.

Lekuona ez dabil axaletik. Sakondu egiten ditu bere arrazoibideak; argitu egiten ditu illunpeak.

Zeintzuk dira bertsolari batek nai ta ez bear dituan doaiak?

Bat-baterako trebetasuna, oroimen edo «memori» apartekoa, bertsoa ondo ta gozo neurtzeko almena.

Doai aukerak bakarrik ez dute osatzen bertsolaria, Lekuonaren ustez.

Auetaz kanpo beste osagai aukerak bear berezkoak ditu: ateraldi zorrotzak, suspertasuna, gatza, piperra, egokitasuna.

Au guztia eskatzen dio erriak bertsolariari.
Bestela ez du bertsolari egizkotzat juzkatuko.

* * *

Ezpairik gabe, doai oietaz jantzia egon bear du bersolari batek, baiña erabiltzen ere jakin egin bear du.

Berezko aundia zuten bertsolari askotxok galdu zuten beren izena, doai oietaz baliatzen jakin etzutelako.

Ustelkerira, zabarkerira, lokaztegira jo zuten. Erabili bear etzituzten gaiak erabili zituzten tentel batzuren gozamenerako.

Ondo ezitako jendea, gizalegearen, errespetoaren eta ordenaren aldeko jendea nazkatu egin zuten; belarri pin asko mindu zuten.

Amabi urte nituanerako konturatu nintzan ortaz. Etxean taberna genduan eta garai artan pamarik geien zuten bertsolariak an kantatuak ziran. Ba-zuten almena, ba-zuten etorria, bazituzten bearrezkoenak, baiña biderik kaxkarena aukeratu zuten beren kaltetan.

Etzan beren errua, sarritan esan dedanez, alboan izan oi zituzten buruberotzailleena baik.

Lastimagarri zan benetan gertatzen zitzaiena. Entzuleak erakarri bearrean uxatu egiten zituzten beren izketabide trakets eta merkearengatik.

* * *

Bertsolaritza ez du bertsolariak bakarrik osatzen, Lekuona'k egoki dionez. Bertsolariak entzuleak bear ditu, pelotariak pelotalekua ta arraunlariak ontzia bear dituan bezelaxe.

Bertso saio baten garrantzia, geienetan, entzuletan egoten da.

Bertsozale purrukatuz inguratuta dagonean kantatzen du errez eta gogotsu bertsolariak. Alakoetan etzaio iturririk agortuko; jarioa ugaltzen joango zaio, pozaren pozez.

Baiña inguruan euskerarik ez dakian jendea, edo bertsoaren giarrik jasotzen ez duan jendea dagola konturatzen ba'da, oztu egingo da bertsolaria. Kantatzen duana gogo gabe kantatuko du, ta lenbailen lanak bukatzera joango da.

Zertarako jarraitu bear du, alperrik ari dala konturatuta gero?

Ogeitamar urtean erriz-erri ibili dan batek esaten dizute au. Ba-det motiboa zer gertatzen dan jakiteko. Nik bezela aitortuko dizute beste bertsolari guztiak. Kantatzen ari dana bereala jabetzen da nolako entzuleentzat ari dan lanean.

* * *

Orain larogei urte, Gipuzkoa'n, euskera zan buru ta errege.

Orduko bertsolariak ordu luzeetako saioak egiten zituztela sagardotegi ta ardandegietan?

Giroak ere alaxe laguntzen zien. Euskaldun utsak eta bertsozale purrukatuak izaten zituzten

aurrekaldean. Aien eskariz eta aien erregutara aritzen ziran lanean.

Gaurko giroan, noranai joanik, euskalduna baiño erdalduna geiago ikusten dan ontan, zer gogo dauka bertsolari batek lanari ekiteko?

Zeinek eskertu bear dio? Norentzat ari bear du?

* * *

Artoa edo garia ereiteko giro zai egon oi da nekazaria.

Txarra geiegizko bustia, txarra geiegizko legortea. Kolperik ez eginda obe, alik eta girotu arte.

Arrazoi aundiz, alperrik ez du ari nai nekazariak.

Ezta bertsolariak ere. Gustoko giroa aurkitzen duanean kosta egingo zaio ixiltzea. Baita astea ere girorik aurkitzen ez duanean.

Bertsozalerik amorratuena euskaldun baserritarra izan da, bai len eta bai orain. Entenditu ere kaletarrik eskolatuenak baiño geiago egiten duala esango nuke. Berezko bertso sena du baserritarrak edo artzaiak.

Kaletarrak baiño probetxu aundiagoa aterako dio bertsoari; txarra, erdipurdikoa ta ona ere iñork ez bezela bereziko ditu baserritar bertsozaleak.

«Orixe» aundiak au aitortu zidan beingo batez: berari kosta egiten zitziola bertsoaren muin osoa jasotzen. Ortarako edozein menditar abillago zala bera baiño.

El Diario Vasco, 1979-VIII-26

TXAPELKETAK

Bertsolari batek, txapelketan, bere neurriaren erdirik ez du ematen. Ez da bere onean egoten bertsolaria. Beste mundu batean bizi baltz bezelatsu.

Aulkian exerita patxaran entzuten dagon ura ez da kontaratzen bertsolariaren larritasunez eta suprimenez.

Aizkolariak ere joko aundi batean estutzen eta larritzen dira; kolpe oker batzuk ematen dituzte. Baita zuzendu ere, ari dirala.

Bertsolariaren kolpe utsak *poto* esan nai du.

Buruzko lana da, ta une txiki batean egin bear dana. Okerra zuzentzeko ez dago denborarik.

Esandakoa esana dago, zuzen bada ta oker bada.

* * *

Gustoko lagunarte batean, bazkari edo aparri baten ondoren kantatzen du gogotsu bertsola-

riak. Giro ona izan dedilla; euskaldun bertsozaleak izan ditzala aldamenean.

Alakoetan iñork agindu gabe asiko da lanean. Saio luze samarrak ez du aspertuko. Are ta naiago, bear bada.

Txapelketa batek milla komeri ditu berekin. Zeiñi zer gai egokitzen zaion ere ba-dago alde ederra.

Eraman alako karga eman bear zaio bertsolariari. Korrika errez egin lezaken sailla izendatu bear zaio, ta ez aldapa latzez josia.

Pagoari ez dago intxaurrik eskatzerik. Orainarteko bertsolariak eskolatu gabeko bertsolariak izan dira. Berezko ikaragarria, baiña ikasitakorik ezer gutxi.

Alako bati batere ezagutzen ez duan gai bat jartzen badiozu, arenak egin du. Igeri ez dakian bat putzu sakonera botatzea bezela da.

* * *

Goizueta'ko Narbarte zanari beingo batez, Beljika'ko erregiña dan Fabiola'ri kantatzeko agindu zioten.

Sekula bere denboran ez omen zuan alako estuasunik igaro.

Ark ez jakin, gizarajoak, munduan Fabiola'rik zanik, ain gutxi Beljika'ko erregiña izan zitekenik.

Bertsoa moldatu zuan al zuan bezela, baiña gatza palta duan janaria bezelakoa.

Ikazkiñen bizimodua agertzeko agindu baliote, beste modutan irtengo zitzaizkion gauzak.

Gaur, zorionez, bertsolari eskolatuak ba-
ditugu. Oientzat gai zail gutxi izango dituzte
epai-maiko gizonak.

Baiña, bertsolari senaz beren maillakoa edo
areagoa dan bat, oso gaizki ibil diteke agertu
dedan motiboarengatik.

* * *

Au dalako edo ori dalako, izen bat artua
daukan bertsolariak ez du gogorik txapelketara-
ko.

Sonarik artu gabe daudenak, zer galdurik ez
daukatenak, aiek pozik joango dira, seguru as-
ko.

Bertsolari onak etengabeko eskea izaten du
batetik eta bestetik.

Erriak ba-daki onentsuenak nortzuk diran,
eta aieri deitzen die.

Aiek ez dute txapelketa bearrik. Beren tre-
betasunari esker, atea zabalik dauzkate nunai.

Anai bezela konpontzen dira danak; ez dago
asarrerik eta alkar ikusi eziñik beren artean.

Txapelketa batera ezkerø batek bear aurre-
na, batek laugarren edo zortzigarren.

Ontatik etortzen dira naigabeak eta biotzon-
dokoak.

* * *

Danok ez gera berdiñak. Batzuk lasaixeago
artzen dituzte gauzak beste batzuk baiño.

Txapelketarako itza emandako bertsolariak

izaten dira aurreko egunetan lorik egiten ez dutenak. Burua etengabeko nekean dutenak, alegia.

Eta abildadeak neurtzeko ordua datorrenean, goizetik gorputza bizitu bearra izaten dute edari bidez.

Ur oietan askotan pasatako batek esaten dizute au guztia.

Gogozko tokian ez da aldaparik izaten, baina gogozkoa ez dan artan eragozpena besterik ez da ikusten.

El Diario Vasco, 1979-XI-24

SANTA AGEDA ESKALEAK

Otsaillaren lauean izaten da Santa Ageda bezpera.

Atzoko alean, Iñaki Linazasoro'k, oitura au berriro berpizten ari dala esaten zigun. Ez da gezurra izango, uriburu edo «ziudadeeri» dago-kionez.

Santa Ageda eskaleak bi mailletakoak dira. Bakoitza bere tokian jarri bear degu.

Uriburuetan, eta euskerak beerako aundia egin duan erri aundietan, koroak irteten dira kalera. Bakarka kantatzen duana, «solista», abots onekoa izan oi da; itxurazko tenor edo baritonoa, geienetan.

Nola bakarkakoak, ala taldekoek, ikasitako kantak abesten dituzte.

Koru on bat beti da atsegiña euskaldun belarrirentzat. Talde oiek ematen diote egunari be-rea. Ongi betetzen dute beren egitekoa.

Baiña, ba-dago beste mailla bat oso kontuan artzekoa; maillarik jatorrena, ezpairik gabe.

Mailla ontan, taldekoek kantatzen dutenak ez du ainbat garrantzi.

Zenbat eta koplari ohea eraman, orduan eta geiago luzitzen dute talde auek; orduan da diru geiago bildu ere.

Koplariaren bizkar egoten da gorabeera guztia.

Bi puntuko bertsoak dira ateondoan geienbat usatzen diranak. Koplari onak izan dira bertsolari on izatera iritxi gabeak.

Bi puntuko bertsoa oso errez moldatzen, eta lau edo bost puntukoa oso aldapa gora egiten. Artara ezin moldatu.

Mailla ontakoak baserriz-baserri ibili oi dira. Orain asi dira kalera azaltzen ere, baiña gure txiki denboran eta gure parajeon, oso nekez.

Bertsolari onak errez asmatuko du koplari ona izaten, artara pixka bat jartzen bada; oitura pixka bat artzen badu.

Jolaseko lana baita beretzat bi puntuko bertsoa moldatzea.

Ernani aldean, Santa Ageda bezperan ez, baiña San Juan bezperan izaten ziran eskaleak. Askotan koplari ibilia zan Txirrita.

Garai artako erretore D. Miguel Mendikute jaunari ola kantatu omen zion Txirrita'k:

Amaika anima zeruan ba-da
D. Migel dala merio,
zerbaitegatik jarria dute
Ernani'ko bikario.

Bedorren modun aitonak ere
D. Migel zuan izena,

amaika ijito eta eskale
mantendutako gizona.

Atxukarro apaiz jaunari kantatua beste au:

Predikatzaille ederra eta
konpesatzaille jatorra,
gogoan daukat noiz saldu nion
zazpi urteko zekorra.

Gure inguruetan geien pamatzen zuten koplaria Joxe Gaztelu zan: Bautista Gaztelu bertsolari sonatuaren anaia.

Santa Ageda inguratzen zalarik, izaten zuan eskea pranko: uraxe nai alde bateko ta besteko kuadrillek.

Aparta zala ateondoan, sarri entzun nion ama zanari. Neska gazteak ziran garaian, Santa Ageda bezperaren zai irrikitzen egoten omen ziran.

Joxe Gaztelu'ren koplak entzuteko, batez ere.

Ez omen zuten diru askorik izaten, baiña aretxi bai gustora eman beren limosnatxo.

Ugaldu bitez koplari trebeak oitura zar onen onerako.

El Diario Vasco 1980-I-31

BERTSOLARI ESKOLAK

Asko itzegiten da gure egunetan Bertsolari Eskolaz.

«Olako ta alako» tokitan Bertsolari Eskolak sortu dirala.

Uztaidazute galdera au egiten:

Ikasi ditekean zerbait ote da bertsolaritza?

Berezkorik ez duanarentzat, itxasoan porruak aldatzea bezela dala esango nuke.

Bertsolari sena berekin duala konturatu ezker, alakoari lagundu egin bear zaio, ori bai. Alakoarentzat ondo letorke Bertsolari Eskola.

Berreun mutiko biltzen diran eskola batean, bertsolari seneko bat izatea garaipen aundia da. Eziñezkoa iruditzen zait.

Berreunetatik bat bertsolaria izatekoz, emendik urte batzuetara gaiñezka izango genituzke bertsolariak. Eta au ez da gertatuko, zorigaitzez.

Gu geu amar senide izan gera, ta beste bat ez

da bertso bat osatzeko gai danik. Gurean nik bakarrik nuan bertsolari sena.

Saillean mutiko danak batera artuta ez da ezer aurreratuko.

Doai ori txikitandik dakartenak aukeratu bear dira; aieri erakutsi bear zaie erakuts ditekeana.

Pagoari ez dago intxaurrik eskatzerik. Artarakoa ez danak ez dauka zer egiñik, ogei eskola pasatzen baditu ere.

Bertsolariak sortzen baiño lenago, euskal giroa ta erri-giroa sortzen alegindu bear degu; bertso-zaletasuna sortzen, alegia.

Arretaz entzuten dionik ezpadu, bertsolaria bereala mututuko da.

El Diario Vasco, 1981-VII-11

DAKIANAK BA-DAKI

Bertsolariaren jokabide ta teknika sakonetik ezagutzeko, norberak bear du alako bertsolari kutsu bat.

Oiartzun'go seme argi ta jakintsua dan don Manuel Lekuona'k, «Literatura Oral Vasca» liburu baliotsua idatzi zunean, au esan nun nere baitan:

«Onetxek bai bertsolariaren berri sustraitik dakiala; onetxek bai gauzak diran bezela ta pulamentuz esaten ditula».

Gaitzari ondo antzematen dion sendagille bat bezela jotzen det Lekuona jauna. Osoosoan asmatu baizun bertsolaritzaren berri ematerakoan.

Bertsolariaren kezkak zer diran, kantatzera koan nola moldatzen dan, geien-geien zerk esutzen dun eta abar.

Au dana argi ta garbi agertzen da Lekuona'ren liburuan.

Eta, olerkaritzan edo poesigintzan murgildurik zeuden euskaldun asko arriturik aozabal-ka gelditu ziran. Bertsolariaren xixtima oso alderantzizkoa izan. Ez euki zer ikusirik poesigintzarekin.

DOÑUAREN ARIRA

Bat-batetan bertsoak jaulki bear ditun bertsolariak, azkar egin bear ditu lanak. Tarte txikia gelditzen zaio: ez dauka denbora alperrik galtzerik. Artzen dun doñuaren arira eramaten du bertsoaren neurria. Bertsoa luzetxo edo laburtxo irteten zaionean, bereala konturatzen dira entzuleak. Alako akatsik ezpaita belarrietan goxo sartzen.

Artu dun doiñuak eskatzen ditun izkin edo silabak bear ditu, ez geiago ta ez gutxiago. Doiñuak lagunduko dio beroiek aurkitzen.

Ez da ibiliko poetak bezela beatzarekin silabak kontatzen.

Ez dauka ortarako astirik, eta ez dio paltarik egiten. Zerbaitegatik da bertsolaria.

Bertsolariaren kezka nagusia, bertsoaren lau edo bost puntuak ondo bukatzea da. Ondo uztartutako puntuak izatea nai du. Oiek asetzen dute benetako bertsozalea.

PUNTU BALDARRAK

Ondo uztartzen ez diran puntuak, puntu baldartzat jotzen ditu erriak.

Aiek erabiltzen dituna, bertsolari baldar-tzat.

Puntu bat A letrarekin bukatzen dala, ta urrengoa A letrak bukatu ezker bertsua dala pentsatzen dutenak ba-dira.

Erdal poesian erreztasun aundiak daude or-tarako. Erdal poesiaren arau ta legeak ez dute balio euskal bertsolariarentzat.

Lekuona'k egoki dionez, azken letrari begi-ra egon gabe, bertsolaria aurreragotik asten da itzak al dan egokien tolestaten, puntuari bere kurpilla ematen. «Burua» ta «Beso» a letrarekin bukatzen diralako bertso bezela juzkatzea ez da konprenigarri bertsolari batentzat. Askoz geiago eskatzen dio bere buruari.

Ori orrela izatera, edozein litzake bertsolari. Ez leukake eragozpen aundirik gainditu bea-rrik.

LANIK ZAILLENA

Bertsolari batek, beti, azkeneko puntua pentsatzen du lendabizi.

Uraxe euki bear du gogoan. Gaiñontzekoak doiñuaren arira jaioko zaizkio, ta azken onak erruz balioko dio.

Argatik da saiorik zailena ta gaiztoena pun-tuak jarritako saioa.

Beste jaun bat izango da puntua jarriko dio-na, ta ari jarraitu bear.

Azkena pentsatzerik ez dauka, aurretik zer datorkion ez daki-ta.

Puntu batzuk, gaiñera, oso aldapatsuak dira, euskerak aieri josteko moduko itz gutxi ditulako.

El Diario Vasco, 1983-VIII-7

ERREZTASUNAK

Gu erriz-erri bertsotan asi giñan garaian, geure eztarriz baliatu bear izaten gendun. Eziera oneko jendea aurkitzen gendun geienetan, beti ezpada ere.

Ixiltasuna gordetzen zekian jendea; bertsokak entzutera joandako jendea.

Gaur, sasi-eztarriak, au da, mikrofono ta altabozak nunai. Nekerik gabe kanta ditzake bertsolari batek burura datozkionak.

Alare, ezin entzun diotenik. Erdiak entzule erdaldunak, eta ume jendea ixillarazterik ez.

Zer gogorekin ari bear du lanean bertsolariak?

Galtzera dator plazetako jarduna. Zarata ta ixkanbilla dagon tokian obe da mututzea.

TOKI ITXIETAN

Bertsolari jaialdiak toki itxietan egin bear dira. Antzoki edo Teatroetan, pelotalekuetan eta abar.

Aietara dijoan jendea bertsoak entzutera dijoa. Sarrera ordainduta joan ere. Beste giro bat aurkitzen du bertsolariak. Aruntza dijoazek bertsosozaleak dira, ta plaza libre batean danetakoak izaten dira. Erdaldun asko, ta zentzu gabeko ume asko, len esan bezela.

Zepai zanak eztarri galanta zun, baiña ez alperrik jendea marmarrean ari danean! Beingo batean au kantatu zun:

Bertso-lanean asi gaitezen
orain poliki-poliki,
gu zertarako etorri geran
jende guztiak ba-daki.
Bertsoak entzun nai dituana
bozez ez dedilla jeiki,
euskaldun piñik ba'dago beintzat
atentzioa eduki.

Zergatik esan zun «euskaldun piñik ba'dago beintzat?»

Euskerarik etzekian asko egongo zalako aurrekaldean. Ez det dudarik egiten.

BEIN BATEZ, ERNANI'N

Estuasunak ematen ditu bere lanak.

Zepai ta beste bat ari omen ziran kantari bein batez, Ernani'n.

Bertsoa nolabait bukatu bear eta, *alua* esan omen zion besteak Zepai'ri.

Esan bazion esan, erantzun ederra jaso zun:

Umildadea urruti eta
errespetua atzian,
edozein gauza esaten degu
txoro-aiziak jotzian.
Len esan dezun arrazoi orrek
pena eman dit biotzian,
alurik ez du berriz esango
jotzen badet kokotzian.

Zaldibi'ko amerikano bati au kantatu zion
bein:

Balore aundia dute
ardi ta beietan,
kilometruak asko
ango mendietan.
Mezikan entzun gabe
dabiltza jaietan,
neuk ez nuke bizi nai
alderdi aietan.

Umore aundiko gizona zan Zepai, ta bai
adarjotzaille dotorea ere, diximulu ederrean.

El Diario Vasco, 1983-VIII-10

BERTSOLARITZARI BURUZ BERRIZ ERE

Bertsolariaren aapaldiak (estrofas) ez dira esatekoak edo oguztekoak, kantatzekoak baizik.

Jokabide au, dio Aita Zabala'k, ez da euskal bertsolariena bakarrik.

Antziñako poesigintzatik datorrena degu. Beste izkuntzetan ere erabilia, beraz.

Bertsolariak lenengo aukeratzen duna, doña da beti. Eta dalako doña letraz osatzen alegintzen da ondoren.

Doña xume ta apalak dira bertsolari doñaak. Illun samarrak, goibel samarrak askotan. Berentasun batetik irteten ez diranak iñoiz. Oni «monotonía» esaten zaio erderaz.

Bertsolari izan geranok ez daukagu au ukatzerik. Ezta gaur bertsolari diranak ere.

Aapaldia adierazteko, bertsoa esaten da gure artean. Erriari jarraituz, ala deituko dioguk ere.

Bertsoak, jakiña, silabak eskatzen ditu, ta neurrian eskatu ere.

Ez bat geiago ta ez bat gutxiago, bertso ona izango ba'da. Nabarmen gelditzen dira bertso ankamotzak eta bertso ankaluzeak. Aiek ez dago inolaz ondo kantatzerik. Batean puska palta, ta bestean puska sobre. Gero, puntuak al dan txukunen uztartu bear dira, doñuaren arabera. Lau puntukoak, bostekoak, bederatzikoak. Auek dira erabilienak, seikoak ere badiran arren.

Adibidez: «Aizak i, mutil mañontzi...»

Bertsolari doñuak, beren apaltasun eta xinpeltasunean, serbitzu aundia egin diote euskal musikari. Onen arrobia aberastu dute:

Sallaberry, Azkue ta Aita Donosti'k jaso egin zituzten, eta beren bilduma edo kolezioetan sartu.

Gaia jostalaria danean, doiñuak ere alaia izan bear du.

Gai sakonak, beste doiñu mota bat eskatzen du. Beren gisa ari diranean, doiñu aukeratzea bertsolariak egiten dute.

Zenbait Sariketa ta Txapelketetan, Epai-maiekoak izendatzen dituzte doiñuak, eta aietarra errenditu bear.

Gure mintzaeran azenturik ez izateak asko errezten du bertsolariaren bidea. Bestela, Aita Zabala'k egoki dionez, bat-bateko bertsoketa eziñezkoa litzake. Euskaldunok degun berezitasun oni esker du bizia bertsolaritzak.

Lengo bertsolari zar askotxok etzekiten idazten. Buruz kantatzen zituzten moldatzen zi-

tuzten bertsoak, eta beste norbaiti eman paperera aldatzeko agindua. Beste batzuk bazuten sortzen zituzten bertsoak paperera aldatzeko gaitasuna.

Bertsolari idazlea ez da idazle ikasi ta landu bat bezela.

Idazle ona, idazle goimaillakoa, itzak apaintzen eta orrazten alegintzen da gogor. Bat kendu ta bestea jarri, au borratu ta ura bere tokian utzi, bere pentsamentua ondoen agertzen duten itzak aukeratuko ditu. Aietaz balia-tuko da. Ontarako maixutasuna bear da, opi-zioa ondo ezagutu bear da. Bertsolari idazleak ez dauka mailla ortara irixterik.

Zer da orduan bertsolari idazlea?

Goimaillako idazle landuen eta bat-bateko bertsolarien artean erdibidean dagona, Aita Zabalaren iritziz.

Oso oker dabillenik etzaigu iruditzen. Eta, lengo batean genion bezela, bertsolari idazlez egundo baiño obeto osatuak gaude gaurko egunean. Danetakoak bear ditu izkuntza batek; goikoak, puntakoak, eta erdibidekoak. Bertsolari idazleak serbitzu aundia ari dira egiten, izkuntzaren onerako. Bear bearrezkoak ditugu.


El Diario Vasco, 1984-II-21

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

(101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* - *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.

- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980-I-6).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*).
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*).
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III).
151. *Mattin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.
168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basari*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.



AUSPOA
LIBURUTEGIA